





VA -

ZRV

3376

tua

cuare

33

P  
an

agatta Darttapt

agatta Darttapt

agatta Darttapt

J-50000936-1

# EXERCICIO

## IZPIRITUALA,

*Bere Salbamendua eguiteco de-  
sira duten Guristinoentçat la-  
guntça handitacoa.*

EDICIONE BERRIA,

Ordenarioco Meça latinaz emendatua.

*Bayonaco gure Jaun Aphezpicuaren  
permisionearequin.*



BAYONAN,

DUHART-FAUVET eta MAURIN, Jaun Aphez-  
picuaren imprimatçaileac baithan.

SALTCEN DA

BERNAIN, liburu marchantaren baithan,  
Apumayuco carrican.

# TABLA.

UR- THEA.	IGAN- DEA.	EPAC- TE.	HAUSTE.	BAZCO.
1835	d	j	4 March.	19 Apir.
1836	c b	xij	17 Oxail.	3 Apir.
1837	A	xxiiij	8 Oxail.	26 March.
1838	g	iv	28 Oxail.	15 Apir.
1839	f	xv	13 Oxail.	31 March.
1840	e d	xxvj	4 March.	19 Apir.
1841	c	vij	24 Oxail.	11 Apir.
1842	b	xviiij	9 Oxail.	27 March.
1843	A	*	1 March.	16 Apir.
1844	g f	xj	21 Oxail.	7 Apir.
1845	e	xxij	5 Oxail.	23 March.
1846	d	iiij	25 Oxail.	12 Apir.
1847	c	xiv	17 Oxail.	4 Apir.
1848	b A	xxv	8 March.	22 Apir.
1849	g	vj	21 Oxail.	8 Apir.
1850	f	xvij	13 Oxail.	31 March.
1851	e	xxviiij	5 March.	20 Apir.
1852	d c	ix	25 Oxail.	11 Apir.
1853	b	xxv	7 March.	22 Apir.
1854	A	vj	27 Oxail.	14 Apir.
1855	g	xij	21 Oxail.	8 Apir.
1856	f e	xxiiij	6 Oxail.	23 March.
1857	d	iv	25 Oxail.	12 Apir.
1858	c	xv	17 Oxail.	4 Apir.
1859	b	xxvj	9 March.	24 Apir.
1860	A g	vij	22 Oxail.	8 Apir.

## URTHARILLA.

- 1 *La Circoncision.*
- 2 st. Basile.
- 3 ste. Geneviève.
- 4 st. Galatoire.
- 5 st. Sim.<sup>n</sup> st.<sup>10</sup> *Vig*
- 6 *Les Rois.*
- 7 st. Théaume.
- 8 st. Lucien.
- 9 st. Furcy.
- 10 st. Guillaume.
- 11 st. Théodose.
- 12 st. Arcade.
- 13 Baptême N. S.
- 14 st. Hilaire.
- 15 st. Paul, erm.
- 16 st. Gér.<sup>ce</sup>, st. Sév.<sup>e</sup>
- 17 st. Antoine.
- 18 Ch.<sup>re</sup> st. Pierre.
- 19 st. Fulgence.
- 20 st. Fab.<sup>n</sup>, st. Séb.<sup>n</sup>
- 21 ste. Agnès.
- 22 st. Vincent.
- 23 st. Sulpice.
- 24 st. Timothée.
- 25 Conv.<sup>n</sup> st. Paul.
- 26 st. Polycarpe.
- 27 st. Jean Chrys.<sup>me</sup>
- 28 st. Valère.
- 29 st. Fr.<sup>s</sup> de Sales.
- 30 ste. Bathilde.
- 31 st. Pierre Nol.<sup>e</sup>

## OXAILLA.

- 1 st. Ignace.
- 2 *La Purification.*
- 3 st. Blaise.
- 4 st. André.
- 5 ste. Agathe.
- 6 st. Amand.
- 7 st. Romuald.
- 8 st. J.<sup>n</sup> de Matha.
- 9 ste. Apollonie.
- 10 ste. Scolastique.
- 11 st. Benoit, ab.
- 12 ste. Eulalie.
- 13 st. Lesin.
- 14 st. Valentin.
- 15 st. Faustin.
- 16 ste. Julienne.
- 17 st. Sylvain.
- 18 st. Siméon, év.
- 19 st. Gabin.
- 20 st. Cyrille.
- 21 st. Pepin, duc.
- 22 ste. Isabelle.
- 23 st. Damien. *V. J.*
- 24 st. Matthias, ap.
- 25 st. Taraise.
- 26 st. Porphyre.
- 27 ste. Honorine.
- 28 st. Romain. *Vig.*

MARCHOA.

- 1 *Saint-Léon.*
- 2 st. Simplicie.
- 3 ste. Cunégonde.
- 4 st. Casimir.
- 5 5 Plaies de N. S.
- 6 ste. Colette.
- 7 ste. Perpétue.
- 8 st. J.<sup>n</sup>-de-Dieu.
- 9 ste. Françoisse.
- 10 40 Martyrs.
- 11 st. Sotor.
- 12 st. Nicéphore.
- 13 ste. Euphrasie.
- 14 st. Lubin.
- 15 st. Longin.
- 16 st. Cyrille.
- 17 st. Patrice.
- 18 st. Alexandre.
- 19 st. Joseph.
- 20 st. Joachim.
- 21 st. Benoît.
- 22 st. Aphrodise.
- 23 st. Eusèbe, év.
- 24 st. Simon.
- 25 *Annonc. N. D.*
- 26 st. Irénée.
- 27 st. Rupert.
- 28 st. Gontran.
- 29 st. Eustase.
- 30 st. Rieule.
- 31 st. Agace.

APIRILLA.

- 1 st. Hugue.
- 2 st. Franç. de P.<sup>1e</sup>
- 3 st. Richard.
- 4 st. Isidore.
- 5 st. Vincent Fer.<sup>r</sup>
- 6 st. Prudent.
- 7 st. Hégésippe.
- 8 st. Perpétue.
- 9 st. Zozime.
- 10 st. Macaire.
- 11 st. Léon, pape.
- 12 st. Jules.
- 13 st. Marcellin.
- 14 st. Tiburce.
- 15 st. Paterne.
- 16 st. Fructueux.
- 17 st. Anicet.
- 18 st. Apollinaire.
- 19 st. Timon.
- 20 ste. Hildegonde.
- 21 st. Anselme.
- 22 ste. Opportune.
- 23 st. George.
- 24 st. Cérèse.
- 25 st. Marc, év.<sup>te</sup>
- 26 st. Clet.
- 27 st. Lupercule.
- 28 st. Vital.
- 29 ste. Marie égypt.
- 30 st. Eutrope.



## MAYATÇA.

- 1 st. Jacq.<sup>s</sup> st. Ph.<sup>pe</sup>
- 2 st. Athanase.
- 3 Inv. ste. Croix.
- 4 ste. Monique.
- 5 st. Orens.
- 6 st. Jean P. L.
- 7 st. Justin.
- 8 st. Antonin.
- 9 st. Grég.<sup>re</sup> Naz.<sup>ze</sup>
- 10 ste. Rictrude.
- 11 st. Mamert.
- 12 st. Epiphane.
- 13 st. Servais.
- 14 st. Pacome.
- 15 st. Pierre, m.
- 16 st. Honoré.
- 17 st. J.<sup>n</sup> Népom.<sup>ne</sup>
- 18 st. Félix.
- 19 st. Yves.
- 20 st. Célestin.
- 21 st. Lupin.
- 22 ste. Quitterie.
- 23 st. Didier.
- 24 st. François R.<sup>s</sup>
- 25 ste. M.<sup>ne</sup> de Pazzi.
- 26 st. Phil. de N.
- 27 st. Hildevert.
- 28 st. Germain.
- 29 st. Guillaume.
- 30 st. Hubert.
- 31 ste. Pétronille.

## EREAROA.

- 1 st. Clair.
- 2 st. Pothin.
- 3 ste. Clothilde.
- 4 st. Optat.
- 5 st. Erasme.
- 6 st. Norbert.
- 7 st. Paul de C.
- 8 st. Médard.
- 9 st. Claude.
- 10 st. Cyriaque.
- 11 st. Barnabé, ap.
- 12 st. Basilide.
- 13 st. Ant.<sup>ne</sup> de P.<sup>e</sup>
- 14 st. Basile.
- 15 st. Guy.
- 16 st. Cyr, ste. Jul.<sup>te</sup>
- 17 st. Avit.
- 18 st. Amand.
- 19 st. Gervais.
- 20 st. Silvère.
- 21 st. Raymond.
- 22 st. Paulin.
- 23 st. Eusèbe. *V. J.*
- 24 st. Jean-Bapt.<sup>te</sup>
- 25 st. Prosper.
- 26 st. Anthelme.
- 27 st. Irénée.
- 28 st. Cresc.<sup>nt</sup> *V. J.*
- 29 st. Pierre, st. P.<sup>l</sup>
- 30 Com.<sup>n</sup> st. Paul.

## UZTAILLA.

- 1 st. Thierry.
- 2 Visitation N. D.
- 3 st. Raymond.
- 4 Tr.<sup>on</sup> st. Martin.
- 5 ste. Zoé.
- 6 st. Tranquillin.
- 7 st. Martial.
- 8 ste. Elisabeth.
- 9 ste. Victoire.
- 10 7 Frères Mart.<sup>s</sup>
- 11 Tr.<sup>on</sup> st. Benoît.
- 12 st. Gualbert.
- 13 st. Turiaf.
- 14 st. Bonaventure.
- 15 st. Henri.
- 16 N. D. du M.<sup>t</sup> C.<sup>l</sup>
- 17 st. Spérat et C.
- 18 st. Thom.<sup>s</sup> d'Aq.
- 19 st. Vinc.<sup>t</sup> de P.<sup>le</sup>
- 20 ste. Marguerite.
- 21 st. Victor.
- 22 ste. Marie Magd.
- 23 st. Apollinaire.
- 24 ste. Christ.<sup>ne</sup> *V. J.*
- 25 st. Jacques, ap.
- 26 st. J.<sup>m</sup>, ste. Anne.
- 27 st. Pantaléon.
- 28 st. Nazaire.
- 29 st. Lazare.
- 30 st. Germain.
- 31 st. Ignace de L.<sup>la</sup>

## ABOSTUA.

- 1 st. P.<sup>re</sup> ès-liens.
- 2 st. Sévère.
- 3 Inv.<sup>n</sup> st. Et.<sup>ne</sup>
- 4 st. Dominique.
- 5 N. D. des N.<sup>ges</sup>
- 6 Transfig.<sup>n</sup> N. S.
- 7 st. Cajetan.
- 8 st. Justin.
- 9 st. Romain. *V. J.*
- 10 st. Laurent, m.
- 11 Susc.<sup>on</sup> ste. C.<sup>ne</sup>
- 12 ste. Claire.
- 13 ste. Radegonde.
- 14 st. Alex.<sup>dre</sup> *V. J.*
- 15 ASSOMPT.<sup>on</sup> N. D.
- 16 st. Roch.
- 17 st. Mammès.
- 18 ste. Hélène.
- 19 st. Louis, év.
- 20 st. Bernard.
- 21 st. Julien.
- 22 st. Symphorien.
- 23 st. Sidoine.
- 24 st. Barth.<sup>mi</sup>, ap.
- 25 st. Louis, roi.
- 26 st. Césaire.
- 27 st. Lizier.
- 28 st. Augustin.
- 29 Déc.<sup>on</sup> st. J.<sup>n</sup>-B.<sup>te</sup>
- 30 st. Gaudent.
- 31 st. R.<sup>d</sup> Nonnat.

BURRULA.

- 1 st. Vincent.
- 2 st. Antonin.
- 3 st. Grégoire.
- 4 ste. Rosalie.
- 5 st. Taurin.
- 6 st. Onésipe.
- 7 st. Cloud.
- 8 *Nativité N. D.*
- 9 st. Omer.
- 10 st. Sauve.
- 11 st. Patient.
- 12 st. Serdot.
- 13 st. Maurille.
- 14 Exalt.<sup>n</sup> Ste.-Cr.<sup>x</sup>
- 15 st. Nicomède.
- 16 st. Cyprien.
- 17 st. Lambert.
- 18 st. Thomas de V.
- 19 st. Janvier.
- 20 st. Eust.<sup>che</sup> *V. J.*
- 21 st. Matth.<sup>eu</sup> év.<sup>te</sup>
- 22 st. Maurice.
- 23 st. Lin, ste. Th.<sup>cle</sup>
- 24 st. Andoche.
- 25 st. Austinde.
- 26 st. Fauste.
- 27 st. Côme, st. D.<sup>n</sup>
- 28 st. Exupère.
- 29 st. Michel, arch.
- 30 st. Jérôme.

URRIA.

- 1 st. Remy.
- 2 Anges gardiens.
- 3 st. Denis aréop.
- 4 st. Fr.<sup>s</sup> d'Assise.
- 5 ste. Aure.
- 6 st. Bruno.
- 7 ste. Julie.
- 8 ste. Brigitte.
- 9 st. Denis, év.
- 10 st. Savin.
- 11 st. Fr.<sup>s</sup> Borgia.
- 12 st. Donatien.
- 13 st. Edouard.
- 14 st. Privat.
- 15 ste. Thérèse.
- 16 st. Bertrand.
- 17 st. Cerboney.
- 18 st. Luc, év.<sup>te</sup>
- 19 st. Grat.
- 20 st. Caprais.
- 21 ste. Ursule.
- 22 st. Mellon.
- 23 st. Léothade.
- 24 st. Magloire.
- 25 st. Crépin.
- 26 st. Rustique.
- 27 st. Frum.<sup>ce</sup> *V. J.*
- 28 st. S.<sup>on</sup>, st. J.<sup>de</sup>
- 29 st. Narcisse.
- 30 st. Lucain.
- 31 st. Quentin. *V. J.*

HACILLA.

- 1 LA TOUSSAINT.
- 2 *Les Trépassés.*
- 3 st. Marcel.
- 4 st. Ch.<sup>les</sup> Borrh.<sup>e</sup>
- 5 ste. Bertile.
- 6 st. Léonard.
- 7 st. Willebrod.
- 8 Stes. Reliques.
- 9 st. Mathurin.
- 10 st. Léon, p.<sup>pe</sup>, d.
- 11 st. M̄artin, év.
- 12 st. Martin, pape.
- 13 st. Brice.
- 14 st. Marcien.
- 15 st. Eugène.
- 16 st. Eucher.
- 17 st. Grég.<sup>re</sup> Th.<sup>ge</sup>
- 18 ste. Aude.
- 19 ste. Élisabeth.
- 20 st. Félix de Val.<sup>s</sup>
- 21 Présent.<sup>n</sup> N. D.
- 22 ste. Cécile.
- 23 st. Clément.
- 24 st. Séverin.
- 25 ste. Catherine.
- 26 st. Pierre, év.
- 27 ste. G.<sup>ve</sup> des Ard.
- 28 st. Etienne, m.
- 29 st. Saturnin. *V. J.*
- 30 st. André, ap.

ABENDOIA.

- 1 st. Eloi.
- 2 st. Fr.<sup>s</sup> Xavier.
- 3 st. Fulgence.
- 4 ste. Barbe.
- 5 st. Pierre Chr.<sup>e</sup>
- 6 st. Nicolas.
- 7 st. Ambroise.
- 8 *Concept. N. D.*
- 9 ste. Gorgonie.
- 10 ste. Eulalie.
- 11 st. Paul, év.
- 12 st. Damase.
- 13 ste. Luce.
- 14 st. Nicaise.
- 15 st. Mesmin.
- 16 ste. Adelaide.
- 17 ste. Olympiade.
- 18 st. Gatien.
- 19 ste. Meuris.
- 20 st. Philog.<sup>ne</sup> *V. J.*
- 21 st. Thomas, ap.
- 22 st. Honorat.
- 23 ste. Victoire.
- 24 st. Delphin. *V. J.*
- 25 NOEL.
- 26 *st. Etienne.*
- 27 *st. Jean évang.<sup>te</sup>*
- 28 SS. Innocens.
- 29 st. Thomas, év.
- 30 st. Sabin.
- 31 st. Sylvestre.



GOICECO  
 OTHOITÇA,

*Etcheco guciec elkharrequin  
 eguin behar luquetena.*

Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu  
 Sainduaren icenean. Halabiz.

Orhoit gaitecin Jaincoaren aiticinean  
 garela, eta adora deçagun Adora-  
 cionezco Acta batez.

*Adoracionezco Acta.*

**J**AINCO-guciz botheretsua, Aita,  
 Semea, eta Izpiritu Saindua,  
 Jainco bat hirur presunetan, sin-  
 hesten dut baçarela munduco le-  
 khu gucietan, eta bereciqui orai

10 GOICECO OTHOITÇA.

hemen çarela; adoratcen çaitut errespetu eta humiltasun ahalic handienarequin; eçagutcen eta aithortcen dut ez naicela gai çure aiticinean aguertceco. Indaçu gracia othoitz hau eguiteco çure oho-retan eta ene salbamendutan. Halabiz.

Hemen, nahi duenac, erranen ditu Jesusen Icen Sainduaren Lethaniac.

*Esquer-onezco Acta.*

**E**NE Jaincoa, esquerrac darozquitçut, çuc ene Aita onac, eguin darozquidatçun gracia guciez, eta bereciqui ceren eman nauçun mundura, ceren erosi nauçun çure Seme bakharraren odolpreciatuaren gostuz, ceren eguin nauçun çure Eliçaren ume, eta contserbatu ene bicitceco oren eta momentu gucietan, eta bereciqui joan den gau huntan.

Orhoit gaitecin batbedera Jaincoac eguin darocun graciaz, ceren eman darocun egungo eguna eternitateco

egunaren irabazteco : orhoit gaitecin egun hau eman darocula gure salbamenduan trabailatceco; menturaz gure biciaren azquen eguna hau dela. Har deçagun beraz borondate fermu bat egun hau ungui emplegatceco, eta lehenago hiltceco ere, bekhatu mortal batez Jaincoa ofentsatuco dugun baino.

Hemen egon behar da aphur bat gogoetan, maicenic eguiten ditugun bekhatuez orhoitcen, eta hei ihes eguitceco gogo eta borondate on bat hartu behar da.

Galde deçagun gaurco bekhatuen barkhamendua.

**E**NE Jaincoa, indaçu, othoi, Latço arraxaz gueroz eguin ditudan hutsen eta bekhatuen barkhamendua.

Ofri-gaquizcon Jaincoari Ofrimenduzco Acta batez.

*Ofrimenduzco Acta.*

**E**NE Jaincoa, huna ene bihotça ceinac çure graciarequin batean hartu baititu borondate eta

gogo onac, çure gana dakhazquet  
 guciac, benedica çatçu ene gogo  
 on guciac, atchic eta compli det-  
 çadan amoreagatic çure ohoretan.  
 Eguidaçu gracia çure borondate  
 sainduaren eçagutceco, eta egui-  
 çu eneaz placer duçuna. Ofritcen  
 darozquitçut ene egungo gogo eta  
 pentsamendu, hitz, obra, lan, pe-  
 na eta sofricari guciac: emoçute,  
 othoi, çure benedictione saindua.  
 Bai, ene Salbatçailea, ene eguin  
 ahal guciac çure cerbitçuan em-  
 plegatceco borondate eta gogo on  
 bat hartcen dut. Guciac çureac  
 dire, guciac çure ganic heldu di-  
 re, eta guciac çure baithan eçart-  
 cen ditut çure laguntça saindua-  
 ren azpian.

Nahi duenac, erranen ditu escoaraz.

**C**URE Aita ce-  
 truetan çarena,  
 erabil bedi sain-  
 duqui çure icena;

**P**ATER nos-  
 ter, qui es  
 in coelis, sanc-  
 tificetur o no-  
 men tuum;



Adveniat regnum tuum;

Fiat voluntas tua sicut in cœlo et in terra;

Panem nostrum quotidianum da nobis hodiè;

Et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris;

Et ne nos inducas in tentationem;

Sed libera nos à malo.

Amen.

**A**VE, Maria, gratiâ plena, Dominus tecum;

Ethor bedi çure erresuma;

Eguin bedi çure borondatea, ceruan beçala lur-rean ere;

Iguçu egun gure eguneco oguia;

Eta barkha diet-çagutçu gure çor-rac, guc gure gana çordun direnei barkhatcen dera-uztegun beçala;

Eta ez gaitçatçu-la utz tentamen-dutan erortcera;

Bainan beguira gaitçatçu gaitce-tic. Halabiz.

**A**GUR, Maria, graziaz bet-hea, Jauna da çu-requin;

Benedicatur çare emazten artean, eta benedicatur da çure sabeleco fruitua Jesus.

Maria Saindua, Jaincoaren Ama, eguiçu othoitz gu bekhatorentçat, orai eta gure heriotceco orenean.

Halabiz.

**S**INHESTEN dut Jainco Aita borthere gucia duena baithan, ceruaren eta lurraren creatçailan;

Eta Jesu-Cristo, haren Seme bakharr, gure Jauna, baithan;

Cein contcebitu baitcen Izpiritu Sainduaren ber-

Benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui, Jesus.

Sancta Maria Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus, nunc et in hora mortis nostræ. Amen.

**C**REDO in Deum Patrem omnipotentem, creatorem cœli et terræ;

Et in Jesum Christum, Filium ejus unicum, Dominum nostrum;

Qui conceptus est de Spiritu Sancto,

natus ex Maria  
Virgine;

Passus sub  
Pontio Pila-  
to; crucifixus,  
mortuus et se-  
pultus;

Descendit  
ad inferos; ter-  
tiâ die resurre-  
xit à mortuis;

Ascendit ad  
cœlos, sedet  
ad dexteram  
Dei Patris om-  
nipotentis;

Indè ventu-  
rus est judica-  
re vivos et  
mortuos.

Credo in Spi-  
ritum Sanc-  
tum;

thutez, sorthu cen  
Maria Birjina-ga-  
nic;

Pairatu çuen  
Poncio Pilatusen  
manuaren azpian,  
gurutceficatu çu-  
ten, hil cen, eta  
ehortci çuten;

Jautsi cen ifer-  
nuetara, hirurgar-  
ren egunean jai-  
qui cen biciric hi-  
len artetic;

Igan cen cerue-  
tara, jarria dago  
Jainco Aita bothe-  
re gucia duenaren  
escuinean;

Handic ethorri-  
co da bicien eta  
hilen jujatcera.

Sinhesten dut  
Izpiritu Saindua  
baithan;

16 GOICECO OTHOITÇA.

Eliça catholica  
sainduan, Sain-  
duen partalierta-  
sunean;

Bekhatuen bar-  
khamenduan,

Haraguiaren  
phiztean,

Bethi ere irau-  
nen duen bicit-  
cean. Halabiz.

Sanctam Ec-  
clesiam catho-  
licam, Sancto-  
rum commu-  
nionem;

Remissio-  
nem peccato-  
rum,

Carnis resur-  
rectionem,

Vitam æter-  
nam.

Amen.

*Fedezco Acta.*

**E**NE Jaincoa, sinhesten ditut ci-  
nez eta fermuqui, Eliçac sin-  
hesten eta irakhasten dituen gau-  
ça guciac, ceren çuc hari irakha-  
xiac baitire; eguidaçu, othoi, gra-  
cia sinheste hortan bicitceco eta  
hiltceco.

*Esperantçazco Acta.*

**E**NE Jaincoa, esperantça dut,  
Jesu-Cristo gure Jaunaren  
mercemenduen berthutez, ema-

nen darotaçula egun batez çure parabisuco gloria saindua, eta mundu hunetan harat hedatceco behar ditudan gracia guciac, ceren çuc aguindu bai darozquigutçu, eta çu baitçare guciz ona, eta çure hitçaren atchiquitceco leiala.

*Jaincoaren eta guiristino Lagunaren Amudiozco Acta.*

**E**NE Jaincoa, maite çaitut ene Ebihotz guciac eta gauça gucien gainetic, ceren çu baitçare guciz maitagarria eta ahala perfeta; maite dut halaber nere laguna ene burua beçala, çure amoreagatic.

*Galdezco Acta.*

**E**NE Jaincoa, indaçu, othoi, Ebekhatu mortalic ez benialic eguin gabe egun hunen sainduqui iragaiteco behar ditudan gracia guciac; galdeguiten darozquitçut Jesu-Cristo gure Jaunaren mercedimenduen berthutez, eta hartaracotz ararteco emaiten darozquitçut Birjina Maria Saindua,

ene Aingueru Beguiraille ona, ene  
Patroin saindua, eta Parabisuco  
Saindu guciac. Halabiz.

*Jaincoaren Manamenduac.*

1. JAINCO bat adora çaçü,  
Halaber maitha osoqui.
2. Juramenturic çuc ez duçu,  
Ez cinic eguinen banoqui.
3. Igāndeac beguira çatçu,  
Jauna ere cerbitça debotqui.
4. Aita eta Ama ohora çatçu,  
Bici çaitecen lucequi.
5. Nehor obraz hilen ez duçu,  
Ez borondatez naistoqui.
6. Paillardica eguinen ez duçu,  
Obraz ez gogoz likhitsqui.
7. Bertcerena ebatsico ez duçu,  
Ez atchiquico injustoqui.
8. Lekhucotasunic ez duçu,  
Ez hitz erranen falsuqui.
9. Bertceren esposic ez duçu  
Desiratuco liçunqui.
10. Guthicia içanen ez duçu  
Bertceren onaren gaizqui.

*Eliça Ama Sainduaren Manamenduac.*

1. MEÇA Saindua entçun-eçaçu,  
Besta igandetan debotqui;

2. Eta Bestac beguira çatçu,  
Manamenduzcoac sainduqui.
3. Bekhatuac cofesa çatçu  
Urthean behin osoqui.
4. Gorphutz Saindua errecebi çaçü,  
Phazcoz bederen humilqui.
5. Garthac, Bijiliac, barur çatçu,  
Garizuma ere osoqui.
6. Orciralean janen ez duçu,  
Ez larumbatean haragui.



# ARRAXECO OTHOITÇA.

---

Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren icenean. Halabiz.

Orhoit gaitecin Jaincoaren aiticinean garela, eta adora deçagun Adoracionezco Acta batez.

## *Adoracionezco Acta.*

**J**AINCO guciz botheretsua, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua, sinhesten dut çu causitcen çarela munduco lekhu gucietan, eta bereciqui orai hemen çarela. Adoratcen çaitut errespetu eta humiltasun ahalarequin; eçagutcen eta aithortcen dut ez naicela gai çure aitcinera aguertceco. Eguidaçu gracia othoitz hau eguiteco çure ohoretan eta ene salbamendutan. Halabiz.



Hemen, nahi duenac, erranen ditu  
Birjina Maria Sainduaren Lethaniac.

*Esquer-Onezco Acta.*

**E**NE Jaincoa, esquerrac bihurt-  
Ecen darozquitçut Jesu-Cristo  
gure Jaunaz, ceren eman gaitut-  
çun mundura, eta contserbatu e-  
gungo egunean, eta bertce gure  
bicitceco egun gucietan; ceren  
eman darocuçun çure Seme mai-  
tea gure salbatceco; ceren sor-  
araci eta hil-araci duçun gure-ga-  
tic; ceren hain maiz barkhatu da-  
rozquigutçun gure bekhatuac, eta  
çure Majestate dibinoac oraino-  
coan eguin darozquigun gracia  
guciez. Othoizten çaitugu, Jauna,  
gracia berac hemendic harat guri  
eguiteaz, eta erraiten dugu har-  
taracotz.

Hemen erran behar dire *Pater nos-  
ter, Ave Maria,* eta *Credo,* latinez  
edo escoaraz, goiceco Othoitcean  
beçala. Galde detçogun gure Jaunari  
bere gracia saindua, eta Izpiritu Sain-

duaren arguiac, gure bekhatuen eçagutceco.

**F**NE Salbatçaile dibinoa, adoratcen çaitugu gure jujea beçala, ceinac egun batez jujatuco baicaitutçu; huna non gauden belhaunico lurrean jarriac, çure oinetan, erromes eta gaichtaguin batçuec beçala. Othoizten çaitugu, ahalic humiltasun handienarequin, guri eçagut-arazteaz eta higuin-arazteaz gure bekhatuac, çuc ceronec eçagutcen eta higuintcen ditutçun beçala.

Izpiritu Saindua, çato gure gana, çure argui sainduaz argui çatçu gure arimac, eta bethe gure bihotçac çure amodio dibinoaren kharraz.

Examina gaitecin egun eguin ditugun bekhatu gucien gainean, eta Jaincoaren manamenduen eta Eliçacoen gainean, eta gure bertce eguinbiden gainean, eta certan eguin dugun bekhatuic gogoz, hitcez, obraz, edo eguin behar guinituen unguiac

ez eguinez, orhoitcen garelaric bere-  
ciqui maicenic eguiten ditugun be-  
khatuez.

Hemen egon behar da aphur bat  
ichilic, bekhatuez orhoitcen.

*Contricionezco Acta.*

**E**NE Jaincoa, barkhamendu es-  
que nagotçu humilqui ene be-  
khatu guciez, damu dut eta ur-  
riqui çure amorea-gatic, ceren  
guciz ona çarelaric ofentsatu  
çaitudan, eta hartcen dut boron-  
date fermu bat ez guehiago be-  
khatu eguiteco, çure graciare-  
quin batean; halaber hartcen dut  
borondate nere bekhatu guciez  
osoqui cofesatceco, eta emanen  
çaitan penitentciaren complit-  
ceco.

**C**OFESATCEN nat-  
çayo Jainco Ai-  
ta bothere gucia  
duenari, Maria be-  
thi Birjina doha-  
xuari, Mikhael Ar-  
khangelu doha-

**C**ONFITEOR  
Deo omni-  
potenti, beatæ  
Mariæ semper  
Virgini, beato  
Michaëli Ar-  
changelo, bea-

to Joanni-Bap-  
tistæ, sanctis  
Apostolis Pe-  
tro et Paulo,  
omnibus Sanc-  
tis, et tibi, Pa-  
ter, quia pec-  
cavi nimis co-  
gitatione, ver-  
bo et opere;  
meâ culpâ,  
meâ culpâ,  
meâ maximâ  
culpâ; ideò  
precor beatam  
Mariam sem-  
per Virginem,  
beatum Mi-  
chaëlem Ar-  
changelum,  
beatum Joan-  
nem-Baptis-  
tam, sanctos  
Apostolos Pe-  
trum et Pau-  
lum, omnes

xuari, Joannes-  
Baptista dohaxua-  
ri, Petri eta Pau-  
lo Apostolu sain-  
duei, Saindu gu-  
ciei, eta çuri ene  
Aita; ceren eguin  
baitut sobera be-  
khatu, gogoz, hit-  
cez eta obraz; e-  
ne faltaz, ene fal-  
taz, ene falta han-  
diaz : hartaracotz  
othoitz eguiten di-  
ot, Maria bethi Bir-  
jina dohaxuari, Mi-  
khael Arkhangelu  
dohaxuari, Joan-  
nes-Baptista do-  
haxuari, Petri eta  
Paulo Apostoluei,  
Saindu guciei, eta  
çuri, ene Aita, e-  
guin dioçoçuen e-  
netçat othoitz gure  
Jainco Jaunari.

Sanctos, et te,  
Pater ; orare  
pro me ad Do-  
minum Deum  
nostrum.

Jainco bothere  
gucia duenari ur-  
rical gaquizcola,  
eta gure bekha-  
tuac barkhaturic,  
hel araz gaitçala  
bicitce eternalera.

Halabiz.

Gure bekhatuen  
barkhamendua, ab-  
solucionea, eta er-  
remisionea, eman  
deçagula Jainco  
bothere gucia due-  
nac eta misericor-  
diaz betheac. Ha-  
labiz.

Misereatur  
nostrî omni-  
potens Deus,  
et, dimissis  
peccatis nos-  
tris, perducatur  
nos ad vitam  
æternam.

Amen.

Indulgenti-  
am, absolutio-  
nem et remis-  
sionem pecca-  
torum nostro-  
rum tribuat  
nobis omnipo-  
tens et miseri-  
cors Dominus.  
Amen.

Eliçaco behar gucientçat othoitz eguin deçagun.

**J**AUNA, contserba çaçü, othoi, çure Eliça; emoçute çure laguntça saindua gure Aita Sainduari, gure Jaun Aphezpicuari, gure Erregueri, haren etcheco guciei, Erresuma huni, Diocesa huni, orai gu garen etcheari. Jauna, comberti çatçu bekhatorosac, contserba çatçu justuac, barkhaçoçute gure etsaiei; emoçute bicitce eternala gure ongui eguillei, eta lagun çatçu bere arimaco eta gorphutceco behar gucietan, gu hequintçat othoitz eguitera obligatuac garen guciac.

Othoitz eguin deçagun halaber gure ahaide, adisquide, ungui eguile, eta bertce arima joan diren gucientçat.

**D**E profundis clamavi ad te, Domine; \* Domine, exaudi vocem meam.

Fiant aures tuæ intendentes \* in vocem deprecationis meæ.

Si iniquitates observaveris, Domine, \* Domine, quis sustinebit?

Quia apud te propitiatio est, \* et propter legem tuam sustinui te, Domine.

Sustinuit anima mea in verbo ejus, \* speravit anima mea in Domino.

A custodia matutina usque ad noctem, \* speret Israel in Domino.

Quia apud Dominum misericordia, \* et copiosa apud eum redemptio.

Et ipse redimet Israel \* ex omnibus iniquitatibus ejus.

Requiem æternam dona eis, Domine, \* et lux perpetua luceat eis.

Ÿ. A porta inferi, R̄. Erue, Domine, animas eorum.

Ÿ. Domine, exaudi orationem meam, R̄. Et clamor meus ad te veniat.

*Oremus.*

**F**IDELIUM, Deus, omnium conditor et redemptor, animabus famulorum famularumque tua-

rum remissionem cunctorum tribue peccatorum, ut indulgentiam quam semper optaverunt, piis supplicationibus consequantur; qui vivis et regnas, Deus, in secula seculorum. Amen.

Fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace. Amen.

**G**URE Aingueru Beguiraille o-  
Gnac, gure Patroin sainduac,  
parabisuco Saindu guciac, eta  
bereciqui çu Birjina saindua, gu-  
re Ama ona; othoitzten çaituzte-  
gu har gaitçatçue çuen lagunt-  
çaren azpian; beguira gaitçatçue  
gau huntaco nahi-gabe eta arris-  
cu gaichto gucietaric, eta ardiets  
dieçaguçue çuen othoitz onez un-  
gui bicitceco, eta bide hortaz he-  
riotce on baten eguiteco gracia.

Ofri deçogun Jaincoari gaurco gu-  
re loa.

**E**NE Jaincoa, ofritcen darotçu-  
gu gaur hartuco dugun erre-



pausua; çuc cere baithan hartcen duçun errepausu eternalaren ohoretan, Jesu-Cristo gure Salbatçaile dibinoac lurrean hartu duenaren, haren heriotcearen, eta haren ehorztearen ohoretan.

Jesus dibinoa, ofritcen darotçugu biharco gure iratçartcea, çure atçartasun eta phizte sainduaren ohoretan eta batasunean: adoratcen ditugu çuc batean eta bertcean içan ditutçun dispositione sainduac, eta hec beçalacoac içaiteco gracia galdeguiten darotçugu humiltasun handi bat-equin.

Çato, ene Jesus dibinoa, çato gure-gana, eta bici çaite gure baithan mundu huntacotz eta eternitatecotz.

Halabiz.

## NOELA.



**A** TÇAB gaiten , atçar lotaric.  
 Gau huntan da Jesus sortcen ;  
 Amodioac garaituric ,  
 Gure-gatic da ethortcen. (*Berriz.*)

Gu cerurat nahiz altchatu ,  
 Jesus jausten da lurrerat ;  
 Heldu da gu nahiz salbatu ,  
 Gorphutz hilkhor bat hartcerat.  
 Atçar , etc.

Ala haren laudoriae  
 Behar bai dugu cantatu !  
 Ala gure bozcarioac  
 Behar baitu seinalatu !  
 Atçar , etc.

Bekhatua , monstro tristea ,  
 Hoa hire lece beltcerat ;  
 Ethorri duc Jesus maitea ,  
 Hire obren urratcerat.  
 Atçar , etc.

Cerc gaitu bada guibelatcen ?  
 Hel gaiten , hel Jesus gana ;  
 Bekhatoreen gatic da sortcen ,  
 Saindutasun bera dena.  
 Atçar , etc.

Ikhus-garri mirestecoa !  
 Oi ! hau da humiltasuna ,

Ceru beraz goragocoa  
Manjateran da emana.

Atçar, etc.

Erreguen Erregue delaric,  
Ez du nahi distiatu,  
Ez du nahi palacioric;  
Heya tchar bat du hautatu.

Atçar, etc.

Hotçaz ere da penatua  
Sasoinen manatçailea;  
Guciez da gabetua  
Gucien creatçailea.

Atçar, etc.

Bi bestia ditu laguntçat,  
Horra Jesusen gorthea:  
Lasto guti bat etçançatçat!  
Oi! hau gauçaren dorphea.

Atçar, etc.

Exemplu miragarrienaz  
Jesusec gaitu behartcen,  
Amodioric kharxuenaz  
Bere-gana gombidatcen.

Atçar, etc.

Amodioac du sustatcen;  
Haren bihotça guretçat:  
Has gaiten, has haren maitatcen;  
Declara gaiten harentçat.

Atçar, etc. (*Hastean beçala.*)

# EXERCICIO IZPIRITUALA,

*Cein on eta probetchos den Jaincoaren presentcia, eta Jaincoaz maiz orhoitcea.*

**S**AN Ambrosioc dio moyan on eta soberano bat dela Jaincoaren presentcia, eta Jaincoaz maiz orhoitcea, bekhatuari ihes eguiteco. San Thomasec dio nola guindiquen ausartciaric asqui deliberratuqui Jaincoaren ofentsatceco bere presentcian, baldin pentsatcen baguindu beguira dagocula.

Eta eguiatzqui hala da, baldin Erregueen presentciac inspiratcen badarocu errespetu handi bat hequien presumentçat, cer ez lerocu eguin behar Jaincoaren presentciac, baldin eguiatzqui fedear penetratuac eta bentçutuac baguine?

EXERCICIO IZPIRITUALA. 33

San Basilioc dio oraino, Jaincoaren presentcia moyan excellent bat dela tentacionean defendatceco. San Augustinec erraten çuben : Orhoit çaitte Jaincoa beguira dagotçula, capitain bat bere soldaduei guduan hari direnean dagoten beçala; escu batean bere graciac dituela çure laguntceco eta socorritceco, noiz eta ere bere fagoreac galdeguinen baitiozcatçu; eta bertce escuan khoroac dituela çure errecompensatceco haren etsaien gainean eramaten ditutçun bictoriez.

Ez da eguiaz deus ere curaye guehiago ematen dubenic, eta nihor guehiago borthizten eta animatcen dubenic, presentcia haren orhoitçapena baino.

Hala erraten cioten Jesu-Cristoc bere Apostoluei, cerurat igan baino lehen : Orhoit çaitzte çubequin naicela bethi munduaren fineraino. Hitz horiec halaco façoinez animaturic eta borthiztu-

### 34 EXERCICIO IZPIRITUALA.

ric, San Antonioc baciotçan bere desertuan : Jaincoa enequin denaz gueroz, ez naiz deusen ere beldur mundu huntan.

Saindu horrec berac dio oraino deabruaren eta bicioen garaitceco moyanic puchantena dela Jaincoaren presentcia, eta barneco placera eta bozcarioa, eta parabisua causi daitequela lekhu gucietan, baldin guiçonaren bihotça Jaincoaren bihotcean bada.

Jaincoaren presentciaren orhoitçapen horrec miracuiluzqui handitcen du gure fedea, borthizten du gure esperantza, eta sustengatcen amudioz gure bihotça : eta halaber gure amudioa Jaincoarentçat emendatceco, moyan on eta soberano bat da maiz Jaincoari beguiratcea ; ceren guc hari beguiratcen diogun arabera, hanc ere guri beguiratcen bai darocu, eta haren beguiratce hec ekhartcen bai darotçute gure bihotcetarat hambat Jaincoaren amudioaren su

EXERCICIO IZPIRITUALA. 35

inhar, ceinec handitcen bai dute  
guc Jaincoarentçat dugun amu-  
dioaren suba.

Finean deusec ere ez darocu  
hobequiago exprimatcen edo mar-  
catcen orhoitçapen hori, egun  
batez Abrahami Jaincoac berac  
erran ciotçan hitcec baino : Ibil  
hadi ene presentcian, eta perfet  
içanen haiz.

Ikhusi duçu, Guiristinoa, no-  
la dioten saindu horiec, eta bai  
Jaincoac berac ere, cein probet-  
chu handitacoa den Jaincoaren  
presentcia, eta Jaincoaz maiz or-  
hoitcea. Aplica çaquizco çu ere  
artha handi batequin debocione  
saindu horri; eta ez badaquiçu no-  
la eguin behar duçun, irakhaxico  
darotçute San Augustinec, San  
Bernardec, Santa Theresac, eta  
bertce sainduac. Seguida horta-  
ric, causituco ditutçu saindu hec  
munduban cirenean cituzten pent-  
samendu sainduac, eta Jaincoa ga-  
naco maizco bihotz altchatceac.

### 36 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Pentsamendu sainduac barneco suspiratcho batçuec dire, eta Jaincoa ganatco bihotçaren gambiantça bat, ceinac eguin ahal bai ditezque momentu batez; erreichac dire, eta lekhu gucietan eguin ditezquenac, nahiz jatean, nahiz bidetan çoacela, compainietan eta lekhu gucietan, ceren mintçatu gabe eguin ahal bai ditezque, gogoz eta Jaincoaren ganatco bihotz altchatce batez.

Eman çaquizco cin-cinez, Guiristinoa, Jaincoaz maiz orhoitceco debocione saindu hori, horren errecha eta probetchosa denaz gueroz.





---

# PENTSAMENDU SAINDUAC.

---

## *Contricioneaz.*

1. **E**NE Jaincoa, huna ni non  
naicen lurraz ere sofrit-  
cea merecitcen ez dubena.

2. Helas! certaco nic çu utci  
çaitut, biciaren ithurria, munduco  
putçu liçunetaco ur usainduen  
edateco?

3. Ceruaren contra bekhatu e-  
guin dut, ene Aita maitea, eta ez  
dut mereci çure umearen icena-  
erremeti naçaçu neure eguinbide;  
rat.

4. Orhoit çaute, Jauna, eguin  
ditutçun misericordiez; eta ahantz  
bequizquitçu ene gatzetasuneco  
bekhatuac, eta ene ignorantcia  
guciac.

*Amudioaz.*

1. **B**ADAQUIÇU, Jauna, maite  
çaitudala.

2. Maite çaitut, Jauna, bainan  
guehiago maitatu nahi cintuzquet.

3. Caritate eternal batez mai-  
tatu nauçu, eta urricalduric çu-  
re-ganat tiratu nauçu.

4. Bethi erretcen hari çaren su-  
ba, eta behinere iraunguitcen et-  
çarena, susta naçaçu çuretcát, ene  
baithan deus ere causi ez dadint-  
çat çu maitatcen ez çaituenic.

5. Eguidaçu gracia, Jauna, mai-  
ta çaitçadan, eta goarda detçadan  
çure manamenduac.

6. Nahiago dut hil çu maitatcen  
çaitudala, ecen ez bici çu ofent-  
satcen çaitudala.

*Eçagutçaz.*

1. **N**ONDIC heldu othe da,  
Jauna, nic çure baithan  
hambat gracia causitcea?

2. O! cein excelenta den çure  
beldurtasunean bici diren ari-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 39  
mentçat erreserbatu duçun ezti-  
tasunen bilduma!

3. Jauna, çauðe bethi enequin,  
ilhumbetarat eror ez nadin.

*Jaincozco Desirac.*

1. **A** LA baita lurra mespreçat-  
cecoa, ceruari beguirat-  
cen diodanean!

2. Gauça guciac gogotic galdu  
nahi ditut, ene Jaincoa, çure ira-  
bazteco.

3. Ala baita gloria handia, Jau-  
na, çure cerbitçatcea!

4. Naicen choilqui çurea, çu  
ere enea içan çaitcentçat!

5. Gauça guciac garratz causi  
detçadan, ene Jaincoa, eta deus  
ere ez eztiric çu baicic.

Legue çaharrean usantça cen Jain-  
coari ofrendatceco arbolen lehembic-  
ico fruituac, eta bestialeen lehembic-  
ico umeac, eçagutceco Jaincoa de-  
la gure lehembicico printcipioa eta  
gauça gucien fina. Legue berrian, cei-  
netan Jaincoa adoratcen baitugu iz-

#### 40 EXERCICIO IZPIRITUALA.

pirituz, eguiaz contsecratu behar diot-  
çagu gure egun orozco lehembicico  
pentsamenduac eta lehembicico ac-  
cioneac; eçagutceco gure biciaç haren  
ganic ditugunaz gueroz, ez ditugula  
haren cerbitçuan baicen emplegatu  
behar. San Joan-Climacoc dio, Gui-  
ristinoac iratçarri direnecotz, debrua  
bethi han causitcen dela Aingueruari  
disputatceco hequien bihotcetaco pri-  
meciac. Hartaracotz çure izpiritua ni-  
horat ere hedatu gabe, atçartceare-  
quin batean altcha çaçu çure bihot-  
ça Jaincoaren-ganat, cembait pentsa-  
mendu sainduetz, seguidaco horiez,  
edo bertce cembait holacoç.

**E**NE Jaincoa, ene Jaincoa, çure  
ganat atçartcen naiz arguiaren  
pontutic.

Ene bihotça Jaincoarena da, eta  
Jaincoarentçat da.

Ene Jaincoa, eguidaçu miseri-  
cordia, çu çare ene gucia.

Ene Jaincoa, ez dut nahi deu-  
sic çu baicic.

Jauna, cer placer duçu gaur e-  
guin deçadan çuretçat?

EXERCICIO IZPIRITUALA. 41

Ene Jaincoa, beguira naçaçu gaur bekhaturic eguitetic.

Ala baita ezti, ene Jaincoa, çure maitatcea, eta çu fidelqui cerbitçatcea!

Ohetic ilquitcean, erraçu :

Jaiquitcen naiz, ene Jauna, çure cerbitçu sainduan egunaren empletçatcera, çure graciarequin batean.

Ur benedicatuaz ceinatcen çarela,  
erraçu :

Ene Jaincoa, garbi çaçü ene arima çure graciaren uraz, eta eguinen da elhurra baino churiago.

Oracioneco demboraric propienac gaba eta goiça dire. Profeta saindua arguiaren ponturic adreçatcen citçaion Jaincoari, eta guiristinoac ere hartarat exhortatu ditu, erraten diotela : *Jaiqui hadi argui alban, eta çabalçac heure bihotça, hala nola hura, Jaincoaren presentcian.* Goicean noiz eta ere jausten baita ihintça loreen gainerat, orduan Izpiritu Saindua jausten da oracionean daudecen gui-

## 42 EXERCICIO IZPIRITUALA.

çonon bihotcetarat; orduan hequien gainerat ichurtcen du uri ezti hura, eta gracien ihintça; oracionea arimaren naurritura da. Davitec dio hura dela haren oguia, eta jaterat ahanzten citçaionean, bihotça idortua causitcen çubela. Ohetic lekhora erdi beztituric ahalic lasterrena, eguiçu çure goiceco othoitça : jar çaitte Jaincoaren - presentcian, eta consideraçu Jaincoa argui handiz inguratua, ceinen erdian eguiten baitu bere egoitça, Joudoni Pauloc dioen arabera; eta Majestate terrible haren aitcinean, ceinac Ainguertac ikharatcen baititu, belhaurico jarriric, adoraçu erraten duçula.

### *Adoracionezco Acta.*

**A**DORATCEN çaitut, Jauna, cure presentcian gucia humiliatua, çure handitasunac inspiratcen darozquidan errespetuzco sentimenduz betheric. Eçagutcen dut çure içatearen soberanotasuna, eta creatura guciez disposatceco duçun podorea, ceren çu baitçare hequien printcipioa eta fina.

EXERCICIO IZPIRITUALA. 43

Cerua eta lurra çureac dire; hetan causitcen ditut gauça guciac, çure escuco obrac dire. O, ene Jaincoa! çu çare bakharra horren obra handiac eguin ahal detçaquena; ez da bertce Jaincoric çu baicen, ceina bici baitçare eta manatcen baituçu mende gucietan.

*Esquerren errendatceco Acta.*

CER esquer errendatuco darotçut, ene Jainco Jauna, çure ganic errecibitu ditudan onthasun guciez? eta cer eçagutçazco sentimendu causi ahal diteque çure fagore handiei ihardesteco gai denic? Benedicatuco çaitut, ene Jaincoa, bici naicen egun gucietan, hala nola eguiten baitçaitut oren hunetan; cantatuco ditut çure misericordiac eternitate gucian; juntatuco dut neure boça çure laudatcen munduban hari diren creatura gucienequin batean, egun batez ceruan çure laudatcen finic gabe hari diren do-

44 EXERCICIO IZPIRITUALA.

haxuequin juntatceco çoriona du-  
quedan artean. Halabiz.

*Contricionezco Acta.*

**E**NE Jaincoa, barkhamendu es-  
que nagotçu humilqui ene be-  
khatu guciez, damu dolore eta  
urriqui handirequin, ceren hain  
ona eta infinituqui maitagarria ça-  
relaric ofentsatu çaitudan. Hart-  
cen dut deliberacione fermu bat  
ez guehiago bekhatu eguiteco,  
çure graciarequin batean; bai,  
eta halaber hartcen dut boronda-  
te cofesione on baten eguiteco,  
eta emanen çaitan penitentciaren  
complitceco. Halabiz.

*Ofrendazco Acta.*

**J**USTU da, Jauna, çuretçat bici  
nadin, çu enetçat hil çarenaz  
gueroz; çure gloriarentçat tra-  
baila nadin, çu bethi ene] salba-  
menduarentçat eguin çarenaz gue-  
roz. Errecibi çaçü, othoi, Jauna,  
egun nic eguiten darotçudan sa-  
crificioa neure sentimenduez, neu-



EXERCICIO IZPIRITUALA. 45

re accionez, eta neure içaite gu-  
ciaz; resolucione borthitz bate-  
quin ez deus ere eguiteco çure  
manamenduen eta çure placera-  
ren arabera baicen. Halabiz.

*Galdeen eguiteco Acta.*

**H**AIN flacoa naiz, Jauna, non  
ecin prometa bai deçaquet  
berthutean fermutasunic, çure  
sustengutic, eta çure graciaren  
indarretic ethorrico çaitanic bai-  
cic : haren galdez nagotçu beraz,  
ene Jaincoa, çure seme Jesusec  
enetçat isuri duben odol precia-  
tuaren merecimenduez, Birjina  
Sainduaren arartecotasunez, eta  
ene Aingueru Beguirailarenez,  
ene Patroin dohaxuarenez, eta  
çure Saindu eta Sainda gucienez.  
Heda çatçu çure escu puchantac  
ene gainerat, ni ene etsaietaric  
beguiratceco, eta peril gaichto  
gucietaric goardatceco. Çato,  
Jauna, ene accione gucien bene-  
dicatcerat, eta niri ceruco bide  
seguraren iracasterat. Halabiz.

## 46 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Seguida hunetan, eguiçu guero çaitçun debocionea, dela meditacionea, edo *Kirie eleisonac*, edo bertce demborac, edo borondateac dioçuna. Goi-ceco proposa asti guti duten presumentçat, belhaunicatu eta seinatcen çarela, erraçü :

**T**RINITATE Saindua, Aita, Se-meä, eta Izpiritu Saindua, sinhesten dut hirur presunetan egui-azco Jainco bat.

Adoratcen eta maitatcen çaitut, ene Jaincoa, neure bihotz guciäz, eta çure baithan ematen ditut neure esperantça eta fidantcia, edo fidamen guciäc.

Esquerrac errendatcen darozquitçut egundaino eguin darozquidatçun ontasun, gracia, eta fagore guciez, eta bereciqui gaurco hunetacoez.

Barkhamendu esque nagotçu, ene Jaincoa, egundaino eguin ditudan bekhatu guciez, damu, dolore eta urriqui hainitzequin, ceren guciäz ona çarelaric ofentsatu

EXÉRCICIO IZPIRITUALA. 47

çaitudan. Hartcen dut delibera-  
cione fermu bat ez guehiago be-  
khaturic eguiteco, çure gracia-  
requin batean; eta halaber hart-  
cen dut borondate cofesione on  
baten eguiteco, eta emanen çai-  
tan penitentciaren complitceco.

Ene Jaincoa, ofrendatcen da-  
rozquitçut egungo eguneco ene  
pentsamendu, hitz eta obra gu-  
ciac : aitcin çatçu bada çure gra-  
ciez eta çure benedicionez, ez içan  
daitecentçat guciac çure gloriaren  
ohoreco, eta ene arimaren salba-  
menduco baicen.

Birjina Saindua, Jaincoaren A-  
ma, gomendatcen natçaitçu, o-  
thoi, çure proteccione sainduan  
har naçaçu. Ene Aingueru Begui-  
railea, eta çu, ene Patroina, pa-  
rabisuco Saindu eta Sainda gu-  
ciec, nitaz othoitz eguiçue.

*Beztitcean eguiteco Othoitça.*

**J**AUNA, berreguin çaçu ene ari-  
ma gracia eta berthute suerte  
guciez, bethi eder causi deçaçunt-

#### 48 EXERCICIO IZPIRITUALA.

çat; eta beguira naçaçu herrautsetarat combertitu behar duben gorphutz huni, çure begui modestac ofentsatuco dituben banitateric eta orgueilqueriaric ematetic.

#### *Trabailatceracoan eguiteco Othoitça.*

**E**NE Nausi maitea, dembora da trabailatceco; othoi, ez naçacula bakharric utz neure penen artean: ez nau penac eta trabailuac icitcen çure-ganic apartatcen ez nabeino, ene beguiac eta ene pentsamenduac çure presentcian eta çure bihotcean amarratuac iduquitcen ditutçuino.

Etchetic ilkhitcean seina çaite, baita çure accione gucien hastean ere. Caselu deitcen dena hagnitz içatucen erreprenditua bere Aingueru Beguirailiaz, ceren ez cen seinatu etchetic ilkhitcean. Seinatcea guiristinoen usantza çahar bat da eta probetchosa.

Lehembicoric, Gurutcearen sei-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 49

nale horrec casatcen ditu debruac, ceren aborritcen baitute Gurutcea, orhoitcen direla Gurutceaz bentçutac içatu direla. On da halaber seinatcea sorguinquerien eta charmen contra, baita eguiterat çoacen obra- ren ungui eguiteco ere.

*Etchetic ilkhitcean eguiteco  
Othoitça.*

**E**NE Jaincoa, nola mundua ene Esalbamenduaren etsaiez ingur- ratua baita, gaitz da peril handi horien artean espaca nadin ari- man edo gorphutcean çaurthu ga- be, baldin çutaz lagunduba ez ba- naiz. O guidari fidela eta segura! guida naçaçu, eta idec çatçu ene beguiac, çure manamenduen bi- dean ibil nadintçat nihorat erre- belatu gabe.

Eliçan sartcen çarenean, athetic haz çaitte fedearen seinaleen ematen, custodia den aldarera beguiratcen du- çula errespetuzco reberentcia modest bat eguiten duçula. Jar lekhuratcen çarenean, eguiçu gauça bera, bel-

## 50 EXERCICIO IZPIRITUALA.

haunicatu, eta burua behehitcen duçula, erraçu çure bekhatuen dolore handi batequin :

Ene Jaincoa, arthiquitcen naiz Magdalena beçala, çure misericordiaren oinetarat, neure bekhatuez dudan damu, dolore eta urriqui handienarequin, deliberatua lehenago hiltcerat bihotz osoz ecenez çure ofentsatcerat: indaçu çure benedictione saindua, eta secular çu ez ofentsatceco gracia.

### *Fedezco Acta.*

**S**INHESTEN dut, ene Jaincoa, çure Majestate infinitua hemen dela present aldareco Sacramendu Sainduan, hirur presunetan egui azco Jaincoa bere handitasun guciarequin, Serafinec ceruan ikhusten çaituzten, maitatcen eta adoratcen çaituzten, estatu berean. Sinhesten dut penetratcen duçula ene içatearen substancia gucia, eta çu guehiago çarela ene baithan ecen-ez neroni. Ez çaitut ikhusten eta ez sentitcen, ceren

EXERCICIO IZPIRITUALA. 51

ez baita justu aguer çaquizcoten ene izpirituco begui flacoei; bainan sinhesten çaitut ikhusten ditudan gauça guciac baino segurquiago : prest naiz, eguia hunen sustenguan, neure biciaren emateco.

*Adoracionezco Acta.*

**C**ER çare çu, ene Jaincoa, eta cer naiz ni! Handitasun adorgarria, ceinaren aiticinean creatura ditezquen guciac eta mundu gucia ez baita deus, çu ceinac ceruco izpirituei aguertcen çaiztela, bethetcen bai ditutçu çure gloriaz, çure beguiratce choilaz. Helas! cer naiz ni çure presentcian, creatura bat gucia corrupcionez bethea baicen? Hala ere nahi duçu aguer nadin. Huna non naicen beraz, Jauna, humiltasunezco eta adoracionezco izpirituarequin : bainan nola ez bainaiz neure baithan deus ere eta indigne bain naiz çure adoratceco, juntatcen naiz neure bihotz guci az Birjina

## 52 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Sainduarequin, eta ceruco dohaxu guciequin, heiequin batean çuri neure adoracione eta errespetu humilen errendatceco.

---

### MEÇA SAINDUAREN

ENTÇUTECO

## DÈBOCIONEA.

---

GUIRISTINO guciec behar dute içan artha handi bat egun guciez Meça Sainduaren entçuteco; egun batez solament huts eguita, uste duçun baino guehiago galtcea da. Dembora harc ez ditu çure eguitecoac guibelatuco, bainan bai abantçatuco; Aldareco sacrificioa denaz gueroz Gurutceco sacrificioaren imagina, eta Jesu-Christoc ez baitu ordenatu bere pasionaren orhoitçapena guiçonon artean contserbatceco baicic. Hortic clarqui aguerida, ecin nihor hobequi ocupa ditequela Meça Sainduaren entçutean, eta ecin Salbatçaileari guehiago



## EXERCICIO IZPIRITUALA. 53

agradatcen çaión debocioneric eguin ahal deçaquela, eta ez haren intencionei guehiago conformatcen çaióenic, haren heriotcearen contsideracionea baino. Meça da lehembicico othoitça, eta othoitz gucien artean den hoberena. Penitent gucien austeritateec, Martyr guciec sofritu dituzten tormenta eta suplicio guciec, ecin gure bekhatuen çorric chumee-na paga deçaquete, Gurutceco sacrificioa gabe, ceinen merecimenduac aplicatcen baitçaizquigu Meçaco sacrificioaz. Entçun behar da beraz Meça ordenarioan baino reberentcia eta debocione guehiagorequin. Apheçac hasten du Meça bere bekhatuen confessionetic, eta çuc ere seinatu eta erraçü *Confiteor* escoaraz, edo latinez, *Arraxeco Othoilcean* beçala, pag. 21.

Eta guero Meçaco debocione hori eguiçu atencione handirequin, cerraten duçun ungui contsideratcen duçula, eta hitz uquigarri horietan tricatcen çarela, bethi aitcina joan gabe.

Ebanjeliorainocoan contsidera ça-

## 54 EXERCICIO IZPIRITUALA.

çu Jesu-Cristo Olibetaco baratcean prosternatua, eta etcina bere Aitari othoitcean dagocola arren harren heriotcea içan dadin çure bekhatuen barkhamendutan; odolez icert arte-rainoco penetan den arren bessarcatcen du calitza guiçonen salbamenduarentçat. Conside-racione horietan sartcen çarela, atentcione eta debocione handi batequin, erraçu :

**J**ESUS maitagarria, enetçat du-çun amudioa-gatic çure bihotceco baquea, çure pasionearen bistan, trublatterat utci duçuna, eman dietçaquidatçu accione hartaz merecitu ditutçun graciac, ene pasioneen gainean nausi nandintçat, eta çure borondateari azpira diotçocodançat. Çure arima dohaxua aflagitu da ene bekhatu-en-gatic; indaçu compuncionearen eta eguiazco penitentiaren izpiritua, ene bicitceco egun guci-etan neure bekhatuen gainean nigar eguin detçadantçat, eta neure nigarren urez deseguin detça-

dantçat. Çuc Olibetaco baratcean  
 sofritu ditutçun tristeciec eta des-  
 gustubec, othoi, causa deçaten  
 ene baithan desgustu eta higuintça  
 handi bat munduco plazer bano-  
 entçat, eta çutaz campoan, ez de-  
 çadan causi tristeciaric eta unha-  
 guneric baicen. Aplica dietçaqui-  
 datçu çure baratceco hagoniaco  
 icialduraren eta odolezco icerdia-  
 ren merecimenduac, çure gloria-  
 ren eta ene arimaren etsaien con-  
 tra naicen flaquecian borthizteco.

Ebanjelioan contsidera çaçu Jesu-  
 Cristoren preso hartcea, Judasen trai-  
 doretasuna; segui çaçu Jesu-Cristo  
 bere pausu gucietan, contsideratcen  
 duçula bereez abandonatua, bere et-  
 saien errabiamenduaren meyoriarat  
 eroria, mespreçatua, cehatua, arrant-  
 cez corroatua, eta heriotcerat conde-  
 natua.

*Othoitça.*

**E**z darotçute, Jauna, Juduec  
 deus ere sofrir araci non ez nai-  
 cen gucietan faltiar; traditu çai-

## 56 EXERCICIO IZPIRITUALA.

tut, Judasec beçala, cembait in-  
tresen-gatic; abandonatu çaitut,  
çure dicipuluec beçala, libertinen  
persecucionearen ebitatcea-gatic,  
eta munduaren gogoraco içatea-  
gatic. Ene ambicioneac, ene bani-  
tateac eta ene pasione nahasiec,  
guehiago sofri araci darotçute çu-  
re burrebec baino; bainan, Jau-  
na, çure burrebei etçaie urriqui-  
tu, bainan bai niri neure bihotz  
guciaz : baldin bere bekhatuez ni-  
gar eguin balute, prest cinen hei  
bere barkhamenduaren emateco,  
Jondoni Petriri eman cinioen be-  
çala bere falta eçagutu çubenean.  
Barkha dietçaquidatçu beraz, ene  
Jaincoa, ene faltac, ceren eçagut-  
cen eta aithortcen baititut, ez  
çaitecela hetaz guehiago orhoit,  
eta ez dut hequientçat guehiago  
amarraric nahi içan; deseguin diet-  
çaquidatçu çure çaurietaric isurt-  
cen den odolaz, harc ene nigar-  
ren escasa compli deçan; eta ha-  
laco façoinez garbi eta purifica na-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 57

çan, non çure beguiac contenta  
ahal baitetçaquet.

Prefaciotic eta elebacionerainoco-  
an, considera çaqu Jesu-Cristo gu-  
rutceficatcerat dohala bere gurutceaz  
cargatua, eta oraino guehiago çure  
bekhatuez.

**J**AUNA, ceinac çure gurutcea e-  
kharri baituçu, eta erran bai-  
tuçu çu seguitu nahi çaitubenac,  
berrea ekharri behar dubela, egui-  
daçu gracia ekhar detçadan çuc  
cargatu nahi nauçun gurutce gu-  
ciac, çuc çurea ekharri duçun pa-  
cientcia berarequin. Çure gurut-  
cea çure uztarria da, eta erran  
duçu nor ere sumetituco baita ez  
dela nekhatua içanen. Çure hit-  
çaren eguian errepausatcen naiz,  
eta iguriquico ditut çuc ethorqui-  
çunean egorrico darozquidatçun  
gurutce guciac, calteac, afliccio-  
neac, eritasunac, eta gaineracoac,  
çure borondate sainduari sumetit-  
ceco erresignacione oso batequin.

## 58 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Sacramendu Saindua altchatcean,  
erraçu :

**E**NE Salbatçaile maitea, erran  
Eduçu çure aho sacratuaz : Hau  
da ene gorphutça. Norc dudatu  
behar du beraz erran duben eguia?  
nic ez, ene Jaincoa, ez dut dudat-  
cen; bainan bai sinhesten, ikhus-  
ten ditudan gauça guciac baino  
segurquiago, Sacramendu Saindu  
horretan çarela, Jaincoa eta gui-  
çona, ceruban çaren estatu bere-  
an. Prest naiz eguia hunen sus-  
tenguan neure biciaren emateco:  
adoratcen çaitut humilqui ceruco  
gorte guciac errendatcen daroz-  
quitçun adoracionequin juntatcen  
naicela.

Consideza çaçü Jesu-Cristo gu-  
rutcerat altchatua, arrantcez coroa-  
tua, itcez oinac eta escuac cilhatuac,  
çauriz estalia, eta gucia odolztatua,  
bere Aitari gorphutçaz eta bere biciaz  
sacrificioa eguiten dioela; ez solament  
orducotz, bainan bai oraino Apheçac  
Meça erraten duben aldi gucietacotz.

## EXERCICIO IZPIRITUALA. 59

Junta çaitte Salbatçailearequin sacrificio handi horren ofrendatceco. Lau chedetaco ordenatua da sacrificio saindu hori, seguidaco oracione hautan causituco duçun beçala, Meçan particularqui gomendatu hehar diren gaineraco gaucequin batean.

### *Othoitça.*

**F**INEAN, Jauna, horra non den çure Eliçaco sacrificio eterna-la, ceinac mespreçaraci bai darozquitçu Juduen holocaustac; horra non den munduaren hastetic imolaturicaco bildotsa, eta nacione guciec çure icenari ofrendatcen dioten oblacione puru hura. Sofri çaçü, Jauna, çure Semearequin izpirituz eta intentcionez juntaturic, ni ere ausarta nadin çuri haren gorphutçaren eta odolaren ofrendatcera, çuc creatura gucien gainean duçun podorearen eçagutceco, çure ganic errecibitcen ditugun ontasunez çuri esquerren errendatceco, ene bekhatuen barkhamenduaren ardiesteco,

60 EXERCICIO IZPIRITUALA.

çuc behar ditudala daquizquitçun  
gaucen çure-ganic ardiesteco. Ha-  
laber gomendatcen darotçut, Jau-  
na, Eliça catolico gucia, gure Aita  
Saindua ceina baita buruçaguia,  
gure Aphezpicua, Erretora eta  
arimen Artçain guciac, gure Er-  
regue eta haren familia gucia,  
Printce guiristino guciac, eta çu-  
re baithan sinhestea duten popu-  
lu guciac. Orhoit çaite halaber,  
Jauna, ene ahaideez, ene adisqui-  
deez, eta ene ungui eguilez: eguin  
dioçoçute gracia, Jauna, hetaric  
oraino munduan direnei bere e-  
gunac çure beldurtasun sainduan,  
tranquilidade eta sosegu handi ba-  
tean pasatceco. Gomendatcen da-  
rozquitçut halaber, Jauna, purga-  
toriotaco defuntu gaichoac; emo-  
çute lekhu fresco bat, arguizco  
bat, baquezco bat. Bereciqui go-  
mendatcen darozquitçut ene ahai-  
deac, ene adizquideac eta orhoit-  
çapen eguileric ez dutenac. Jau-  
na, ez detçatçula ahantz çure et-



## EXERCICIO IZPIRITUALA. 61

saiac eta eneac, duçun pietate infidelez, hereticoez, eta bekhatoros gaichoez. Çure benedicionez bethe çatçu ni persecutatcen nau-tenac, eta barkha dietçaquidatçu neure bekhatuac, hala nola barkhatcen baitiotçatet niri eguiten darozquidaten gaixquiac.

Erraçu guero bortz *Pater*, bortz *Ave Maria*, eta bortz *Gloria*, Jesu-Cristoren bortz çaurien orhoitçapenetan.

Apheçac ostia hausten dubenean, eguiçu comunione izpirituala, ceina baitago comunione sacramentalaren eguiteco desiran, çure indignitatearen eçagutçan, Apheçaren participacionearen galdetcean, eta hartan juntatuac diren graciën comunicacionean.

### *Othoitça.*

**E**NE Jaincoa, desiratcen nuque çure errecibitcea, çure Majestade dibinoari çor çaion amudio, erreberentcia, eta ohorearequin; bainan ene indignitateac defen-

## 62 EXERCICIO IZPIRITUALA.

datcen nau eta erretiratcen nau. Ene Salbatçaile maitea, bothere excelenciazco eta soberanotasunezco bat çure sacramenduen gainean duçuna, çure ganic choilqui, çure graciac comunica ahal deçaquetçuna, campoco instrumentic emplegatu gabe. Othoizten çaitut, Jainco guciz puchanta eta misericordiosa, bethe naçaçu çure unzione sainduaz, eta partale eguin naçaçu çure sacramenduec produitzen dituzten efectuetan. Çure Eliçaco sacramenduen errecibitcea ez da campoco gracia bat baicen, ceina baita comunione onen eta gaichtoen artean; bainan çure izpirituaren participacionea çure amudioaren barneco gracia bat da, ceina ez baitioçute acordatcen çure umeei eta çure adisquidei baicen. Ah! Jauna, ni bekhatoros handi bat naiz, ez dut mereci gracia hori çure misericordia choiletic baicen; bainan Apheçaren comunioneac produitu behar di-

## EXERCICIO IZPIRITUALA. 63

tuben fruituetan partale eguiten nauçula, handi çaçu ene fedea sacramendu dibino horren berthuteaz, borthitz çaçu ene esperantça, eta erre çaçu ene bihotça çure amudioaren subaz; ez deçan guehiago respira çuretçat baicen, eta ez dadin guehiago biciçutaz, eta çuretçat baicen.

Apheçac benedicionea ematean,  
erraçu :

**J**AINCO ona, indaçu çure benedicione saindua, eta ene othoitçetan çutaz, entçuna içateco gracia.

Erraçu guero *De profundis* bat purgatoriotaco arimen fagoretan, edo cembait *Requiem*.

---

## COFESATCECO DEBOCIONEA.

---

COFESIONE on baten bidez Jaincoarequin eguiten ditu baqueac bekhatoreac, jartcen da Jaincoaren gracion, eta ceruco bidean.

## 64 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Cofesione on batec lau condicione behar ditu.

Lehena da Preparacionea. Erran nahi da esaiatu behar duçula ungui çure bekhatuez orhoitcera, çure azqueneco cofesioneac cembat dembora baitu, eta haren arabera hartu behar duçu bekhatuez orhoitceco dembora. Preparacione hori hain necessario da, non hori gabe ez baitu çure cofesioneac deusic balio; eta conticientia ungui examinatceco faltaz, uzten baduçu bekhatu mortalbat erran gabe, bekhatu mortal eguiten duçu.

Bigarrena da Contricionea. Erran nahi da, behar duçula içan çure bekhatuez damu eta urriqui, eta guehiago bekhatuic ez eguiteco deliberacione fermu bat.

Hirugarren condicionea da Cofesionea. Erran nahi da, behar dituçula çure bekhatuac osoqui cofesatu; baldin batere gordetcen baduçu, sacrilegioa eguiten duçu, eta damnacioneco bidean jartcen çare. Erratçu bada çure bekhatuac garbiqui, deus cre disimulatu gabe çure barnean

## EXERCICIO IZPIRITUALA. 65

ceronec eçagutcen ditutçun beçala.

Laugarrena da Satisfacionea. Erran nahi da, penitencia complitu behar duçula artha handi batequin, ahalic lasterrena; eta baldin çure cofesorac manatcen baçaitu nihori satisfacione-ric eguitera ohorean, intresean, edo bertce maneraz, bide gabe eguinic, obligatua çare complitcerat hanc ordenatcen darotçuna.

1. *Bekhatuez orhoitceco aitecinean eguiteco lehembicico Othoitça Aita Eternalari.*

**O**THOITCEZ nagotçu, ene Jau-  
na eta ene Jaincoa, çure-ga-  
nat combertitu nahi nuquen egun  
hunetan, arren çure izpiritu sain-  
duaren dohain eta graciaez fagora  
naçaçun; çure amudio sacratua-  
ren kharrez sustaturic, ethorqui-  
çunean humiltasun oso batequin  
bilha çaitçadan, nic ceinac ene sal-  
bamendua ahanzterat utciric, ardi  
errebelatuaren contuan munduco  
desertuco bide makhurretan ibili  
bainaiz. Entçun naçaçu bada, o-

## 66 EXERCICIO IZPIRITUALA.

thoi, ene Jainco ona, eta egor dietçadaçu çure arguien distiadura, çure bide chuchen eta artechetarat erremetituric, arima nadin çure Seme Jaunaren guidaren azpian, ceina baita bidea, eguia eta bicitcea, eta ceinac manatu baitarocu guri façoin hunetan othoitz eguitea : *Pater, &c.*

### 2. *Bigarren Othoitça.*

**O** Arguien Jaincoa! mundurat heldu diren guiçon guciac arguitcen ditutçuna, ene adimendua argui çaçu çure arguiaz; eta ene bihotça çaurt çaçu çure amudioaren eta dolorearen fletchaz, çure contra eguin ditudan bekhatuen eçagutceco, hetaz dolore içaiteco, eta hequien ungui declaratceco. Birjina Saindua, Jaincoaren Ama, bere combertsionearen eguiteco desira duten presuna gucien alderat hain misericordios çarena, eta ene esperantça maitea, othoi, fagora naçaçu, eta ardietz dieçadaçu gracia Jaincoa-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 67

ren contra eguin ditudan falten eçagutceco ; eta çuec parabisuco Saindu eta Saindac, eguiçue enetçat othoitz, eguin detçadantçat penitentciari dagozcon obrac.

Erraçu guero hemen Andredena Mariaren Lethaniac escoaraz.

*3. Examenaren ofrendatceco Othoitça.*

**O**FRENDATCEN darotçut, ene Jaincoa eta ene Salbatçailea, orai eguitera nohan examen hau, den bada, othoi, çure glorificatceco. Sinhesten dut osoqui, çure odol sainduaren merecimenduaz, barkhatuco darozquidatçula ene bekhatuac sacramendu hunetan, baldin ene aldetic ekhartcen bادت behar den disposicionea ; eta esperantça dut odol sacratu hortaz beraz eguinen darotaçula gracia ungui preparatceco, eta secular ez çu guehiago ofentsatceco.

Eguiçu hemen çure contcientciaco examena.

4. *Bekhatuez orhoitu ondoan bihotceco dolore handi batequin, ceren Jainco on hura ofentsatu duçun, eguiçu Contricionezco Acta :*

**O**ENE Jesus eta Salbatçaile maitea! çure oinetan ahuspez jarria nagotçu barkhamendu esque, ene bihotçaren barnetic, çure Majestate sainduaren contra eguin ditudan falta guciez. Helas! ene Jesus ezta, çure amudio handiaz egundainotic hain maitatu nauçu, non niri ceruco atheen idequitcea-gatic, çure odol gucia isuri baituçu; prometatcen darotçut ethorquiçunean ihes eguinen diodala bekhatuari, ez ifernuco penei beguiraturic, ez eta ere parabisuco dohaxutasunari, bainan choilqui çuretçat dudan amudioagatic; ceren ene Jaincoa baitçare, eta ene arimaren dohaxutasun maitea, eta nic maitatu behar dudana.



*5. Bekhatuaren contraco aborri-  
mendua.*

**A**H! ah! bekhatu gaichtoa eta  
 madaricatua, gaitcesten haut  
 eta osoqui aborritcen; herioa eta  
 ifernua baino higuinago haut; na-  
 hiago diat lehenago hil, ecen-ez  
 Jaincoa ofentsatu. Baldin ene he-  
 riotceaz gal araz ahal bahentçat,  
 gogotic eman neçaquec neure bi-  
 cia, ene Jaincoa eta ene erres-  
 quetatçaillea guehiago ofentsatua  
 içan ez ledintçat. Madaricatua de-  
 la pentsamendua egundaino ene  
 baithan entrada eman darocana.

*6. Deliberacione onezco Acta.*

**P**ROMETATCEN darotçut, ene  
 Jaincoa, gucziz ona eta miseri-  
 cordiosa, baldin behin ahal ba-  
 dut çure graciariat erremetitceco  
 dohaxutasuna, eta partale içan a-  
 hal banadi, çuc, çure ume mai-  
 teei errepartitcen dioçatçuten fa-  
 gore Jaincozco eta amultsuetan,  
 deliberatua naicela ethorquiçu-

70 EXERCICIO IZPIRITUALA.

nean çure alderat leial içaterat,  
eta lehenago hiltcerat ecen-ez çu  
mortalqui ofentsatcerat.

7. *Esperantçazco Acta.*

**E**NE Jainco ona, hain miseri-  
cordiozqui, barkhatu dioçute-  
na Ohoin onari, Magdalenari, Pu-  
blicanoari, eta bertce hainitz bek-  
hatorôs handiei, esperantça dut  
niri ere çure misericordia finic  
gabecoaz barkhatuco darozquidat-  
çula ene bekhatuac, hetaz urri-  
quiz, damuz, eta dolorez gucia  
bethea naicenaz gueroz, eta deli-  
beratua çu ez secular guehiago  
ofentsatcerat. Barkhamenduric  
merecitcen ez dudan arren, çure  
hitcean guelditcen naiz; erran du-  
çu, ez duçula nahi bekhatorea-  
ren heriotcea, bainan bai com-  
bertsionea. Esperantça dut çure  
baithan, ene erresquetatçaile mai-  
tea, ene bekhatuen-gatic eta ene  
salbatcea-gatic hambat sofritu du-  
çuna.

*Andredena Mariari eguiteco  
Othoitça.*

**B**IRJINA saindua eta gloriosa,  
Jaincoaren Ama, bekhatoreen  
ihes lekhoa, çu çare pobreen eta  
churtchen Ama, Ama misericor-  
diosa, den bekhatorosic handie-  
na ere mespreçatcen ez duçuna,  
miserableenen contsolatcerat be-  
thi prest çarena; ez du egundai-  
no nihorc aditu çure baithan be-  
re fidantcia eman dubenic, fago-  
ratu gabe utci duçula. Heldu naiz  
esperantça horren azpian çure-ga-  
nat. Ama urricalmenduxua, ar-  
ren çure graciaren medioz dagui-  
dan cofesione hau behar beçala-  
coa. Ene Aingueru Beguiraila,  
lagun naçaçü, eta çubec ene Pa-  
troin, Saindu eta Sainda guciac,  
ene bekhatuen barkhamendua çu-  
ben arartecotasunaz ardiets die-  
çadaçue, eta daquidan oraino co-  
fesione hau hain osoa, eta com-  
plia nola bailitz ene heriotcecoa.

72 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Çoaz guero cofesatcerat, humil-  
tasun eta modestia handi batequin.  
Apheça contsidera çaqu Jesu-Cris-  
toren presuna bera beçala ; ecen ha-  
ren lekhoa ocupatcen du. Jar çaite  
belhaunico, eta modestqui beguiac  
beheratuac, Apheçari bisaiarat be-  
guiratcen ez dioçula; ceina çaite, eta  
erraçu : *Aita, çure benedicionea inda-  
çu, ceren eguin baitut bekhatu : eta  
erraçu guero Confiteor. . . . meâ culpâ-  
raino, escoaraz edo latinez.*

*Cofesatu ondoan eguiteco*

ACTAC.

*Fedezco Acta.*

**S**INHESTEN dut osoqui, ene Jain-  
scoa, çure odol sacratuaren me-  
reciaz, ene bekhatuac penitent-  
ciazco Sacramendu hunetan bar-  
khatu darozquidatçula, baldin ene  
aldetic disposatua içatu banâiz ;  
eta sinhesten dut halaber, çuc isuri  
ez bacin du çure odol preciatua,  
ecin barkhatuco citçaizquidala,

EXERCICIO IZPIRITUALA. 73

eta hain guti citezquela, ene obrac  
merrecimenduzcoac. Hargatic be-  
raz sartcen ditut neure bekhatu  
guciac çure odol sacratuan itho  
daitecentçat, eta othoitcez na-  
gotçu eman dieçadaçun, barkha-  
mendu oso bat. Halaber darotçut  
othoitz eguiten, ene Jaincoa, çure  
Ama maitearen eta Saindu gucien  
merrecimenduen medioz, agrada  
daquiçun oraino ene cofesione  
hau. Hunetan eta bertce egundai-  
no eguin ditudan gucietan, guer-  
thatu çaizquidan huts guciac, dela  
contricione escasez, cofesioneac  
asqui garbi eta oso içan faltaz,  
dela penitencia ez behar beçala  
complituz, çure misericordiac er-  
remedia dietçaquidan guciac, ot-  
hoi, ene Jainco ona, ceruan bar-  
khatuac guertha daquizquidant-  
çat.

*Esquerren errendatceco Acta.*

**O**ENE Jaincoa, eta Aita miseri-  
cordiosa! ez daquit nola çure  
amudio handiari esquerrac eman,

## 74 EXERCICIO IZPIRITUALA.

haren-ganic errecibituric heldu naicen ontasun handiaz. Ez, ez naiz ni gai hari dagotçan beçalaco eçagutçaric eguiteco, çure Seme maitearen merecimendu eta perfeçione miragarrien moyanez baicen. Beraz hec berac ofrendatcen darozquitçut, ene Jaincoa, nic ecin daidiquedanaren lekhuari, eta presentatcer darozquitçut halaber Birjina Sainduaren merecimenduac ere, ene Aingueru Beguirailarenac, Serafin, Profeta, Patriarca, Apostolu, Martir, Confesor, Birjina, eta finean cerucogorthe guciarenac. Eta, Creatçaille maitea, nahi nuque banu hambat mihi nola baita ceruan eta lurrean creatura, guciac emplegatceco munduaren fineraino çuri esquerren ematen, çure laudatcen eta glorificatcen.

*Contricionezco Acta.*

**E**NE Jaincoa, guciz misericordiosa, Sacramendu hunetan eguiatzco Aita baten amudioa era-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 75

cutsi darotaçuna, niri ceina çu o-  
soqui mespreçaturic, hain liberal-  
qui eman darozquidatçun graciaz-  
co ontasunac galtcerat utci bai-  
titut; nic çu hain handizqui ofent-  
satu, eta contentatcen çaiçquit  
pagamendu chume batez, hãrtce-  
co handi baten aldera hortice-  
bait probetchu bacindu beçala;  
aitcinerat heldu çaiçquit besoac  
çabalduric, bihotz amudioz erret-  
cen hari den samur batequin, niri  
baquezco musuaren ematerat. Ene  
Jaincoa, humiltasun handi bate-  
quin nago ahuspez çure ontasu-  
naren oinetan neure bicitce ira-  
ganac ematen darotan ahalqueriaz  
eta dolorez gucia bethea. Ene Jain-  
coa eta ene Aita, aithortcen dut  
ez dudala mereci çure umeen her-  
runcan içaitea.

SACRAMENDU SAINDUAREN  
 ERRECIBITCECO  
**DEBOCIONEA.**

LEHEMBICICORIC, consideratu behar duçu çure-ganat heldu dela cerua, lurra eta gauça guciac creatu dituben, Jainco Majestate handitaco hura, ceinaren aiticinean Aingueruac eta Serafinac ikharan baitaude.

Bigarrenean, considera çaçü noren-ganat heldu den; çure-ganat ceina ez baitçare herrauxa eta hauxa baitcen, ceinac hambat ofentsatu baituçü.

Hirurgarrenean, considera çaçü certarat heldu den, çure-ganat heldu dela çuri bere graciën comunicatcerat, çuri çure bekhatuen barkhatcerat, eta hitz batez errateco, heldu da amudioz osoqui çuri ematerat.

Laugarrenean, considera çaçü cein necesario çaitçun Jaincoaren errecibitcea, ceren hura baita çure arimaren naurritura bere gosean çure sa-



EXERCICIO IZPIRITUALA. 77

siatceco, çure eritasunetaco erremedioa eta tentacioneen contraco indarra.

*Sacramendu Sainduaren errecibitceco aiticinean eguiteco lehembicico OTHOITÇA.*

**E**NE Jainco ona, ceronec egun ldeitcen nauçu çure-ganat, çure inspiracionez ene bihotça berotcen duçula, çure errecibitceco desira handi eta kharxuetarat. Oho-re eta onthasun handi hori eguin nahi darotaçunaz gueroz, çato bezaz ene arimarat, eta ceronec prepara dieçadaçu halaco façoinez, çure nahitarat perfetqui posedi deçaçuntçat, ceronec eguin eta erreformatu duçun obra; eta nic ere neure aldetic iduqui çaitçadan neure bihotçaren gainean Jaincozco cachet bat beçala.

*Humiltasunezco Acta.*

**O**RDEAN, Jauna, nola ni hurbilduco naiz çure-ganat, çure handitasunari beguira eta ene ez deustasunari, çure chahutasunari

## 78 EXERCICIO IZPIRITUALA.

eta ene liçuntasunari, çure saindutasunari eta ene maleciari? Jondoni Joanni Baptista, hain saindu handia, amaren sabelean santificatu celaric, ez cela gai cioen çure çapata lokharriaren amarratceco. Jondoni Petri, Apostoluen Printceac, cioen: Jauna erretira çaite ene-ganic, guiçon bekhatoros bat naiz. Eta bada ni infinituqui bekhatoros handiagoa, nola ausartatuco naiz, Jauna, çure-ganat hurbiltcerat? Neure baithan ez dut deus ere causitcen bekhaturic eta maleciaric baicen, neure pasione nahasien errebolta gaichtoric baicen. Ene desirac eta ene inclinacione corrumpituac içatu dire ene bicitcearen leguea eta erreguelac. Ez dut egundaino behar den penaric hartu çure amudioarentçat; ez naiz çure justiciaren beldur içatu, ez çure legueari çor diodan errespetuac guibelatu gaizqui eguitetic; egundaino ez darotçut esquerric ungui eman çure-ganic er-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 79

recibitu ditudan onthasunez. Ene bicitce gucia çure contraco guerla bat içatu da; bethi çu niri ungui eguiten, eta ni çuri gaizqui eguiten; çu bethi ene bilha, eta ni bethi çure ihesi. Ah! Jauna, eta nola bada hunelaco creatura dohacabe bat ausartatuco da çure-ganat hurbiltcerat?

Trica çaite hemen aphur bat çure miseriaren eta çure indignitatearen gainean pentsatcen duçula, eta guero erraçü confidentcia handi batequin:

**A**H! Jauna, aditu dut çure boz estia, ceinac deitcen bainan çure-ganat, erraten darotaçula: Çatozte ene-ganat, nekhatuac eta trabailatuac çaretenac, eta nic soleguituco çaituztet. Erran duçu, ene Jaincoa, ez duçula bekhato-rearen heriotcea nahi, bainan bai combertsionea; ez duçu, Jauna, bekhatorea çure-ganic khasatcen, bainan bai deitcen. Erran duçu ez çarela mundurat justuen deitcerat ethorri, bainan bai bekha-

## 80 EXERCICIO IZPIRITUALA.

toreen; ez dutela sendoec miricū-ric behar, bainan bai eriec. Ene Salbatçaile maitea, çure onthasunean eta çure misericordia handian neure esperantça eta confidentcia gucia emanic, heldu naiz eria miricua-ganat; senda naçaçu : heldu naiz bekhatorea justiciazco ithurirat, - justifica naçaçu. Badaquit Publicano bekhatorosaren nigarez casu guehiago eguin cindubela, Farisabaren banquet superbioaz baino; ez cintubela Magdalenaren nigarrac mespreçatu, bainan bai barkhatu, eta çure protecionean hartu. Huna non naicen, Jauna, çure misericordiaren oinetan, neure bekhatuen dolo-reac erdiraturicaco eta porrosca-turicaco bihotz batequin. Eguia da, ez dut Magdalenac beçan bat nigar çure oinen garbitceco, bainan çuc isuri duçu odolic asqui ene eta mundu guciaren bekhatuen garbitceco eta barkhatceco.

*Aita eternalari eguiteco  
Othoitça.*

**A**ITA cerucoa, nola obra onic gabe neure baithan causitcen bai naiz, eta ez baitut deus ere çuri neure bekhatuez satisfacione eguiteco; presentatcen darozquitçut çure Seme Jesusen merecimenduac, ceinac baitire handiagone eta mundu guciaren bekhatuac baino. Ofrendatcen darotçut neure redempcionearen precioa, eta ene Salbatçaileac bere heriotce cruelaz enetçat eguin darotçun pagamendua. Jauna, egoitz çatçu çure beguiac horren bisaiaren gainerat, eta ikhus çaçu horren gorphutça hila beçala aldarearen gainean, eta horren odol preciatua khalitcean barrena oihuz dagotçula. Entçun çaçu çure Seme mai-tearen eta gure anaiaren odolaren boça, ceinac bere heriotcean Galberiatric beçala, orai aldaretaric erraten baitarotçu: Aita, barkha dioçoçute, ecen ez daquite cer

## 82 EXERCICIO IZPIRITUALA.

hari diren; bekhatoros gaichtoent-  
çat gracia eta misericordia gal-  
detcen darotçula, ceina gurutce-  
ficatu baitugu gure bekhaturez.

### *Fedezco Acta.*

**O** JESUS, ene Salbatçailea! sin-  
hesten dut, fede bici batez,  
eguiazqui eta errealqui Aldareco  
sacramendu handi horretan çare-  
la; hor ene izpirituac adoratcen  
du ene beguiec ikhusten ez dute-  
na, nola baita çure Jaincotasuna,  
çure guiçontasuna, çure arima,  
çure gorphutça, çure odola, çure  
izpiritua, eta çure merecimen-  
duac; phitz çaçu ene fedea mis-  
terio handi eta adoragarri horren  
ginean; ô ene Jesus! çor darot-  
çudan sentimendu eta errespetua-  
requin çure-ganat hurbil nadint-  
çat.

### *Amudiozco Acta.*

**Ç**URE amudioac eman çaitu, ene  
Jesus, oguiaren eta mahax ar-  
noaren iduriaren azpian, ene-ga-  
nat ethortcea-gatic; misterio hor-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 83

tan çure amudioaren indar gucia  
eracusten duçu. Othoizten çaitut  
bada, ene Jesus, çure bihotça e-  
netçat sutan eman duen amudio  
berac, enea ere çuretçat bero de-  
çan. Ah! bihotz hotça, bethi hor-  
matua içanen othe haiz? Maita  
çac, hic ere, hi hain borthizqui  
maitatu aben Jesus bera. Ochala  
Jesusen amudio sacratuac erre  
baleça ene bihotça, eta osoqui  
contsumi!

Merecitcen ez dudalaric desirat-  
cen dut çure errecibitcea, ene Je-  
sus, ceren baitaquit eman nahi çä-  
izquidala, eta çure baitan causitu-  
co dudala ene languiadura gucien  
erremedioa. Ene Salbatçaile mai-  
tea, ez nuque nahi comunione hau  
eguin usantça edo ardura batez ;  
othoi, eraguin dieçadaçu bada a-  
mudio bero batez munduco crea-  
turez osoqui huts nadintçat, eta  
çutaz bethe, ceina adoratcen eta  
maitatcen baitçaitut, çuretçat gu-  
cia hasbeherapenez bethea naicela.

*Ofrendazco Acta.*

**O**FRENDATCEN darotçut, ene Jaincoa, orai ni eguiterat nohan comunione hau, çure amudioa-gatic eta çuri plazer eguiteagatic. Badaquit, ene Salbatçaile maitea, comunioneco accione hau haguits agradatcen çaitçula, hiltceraçoan erran cintuben hitz amudiozco samur eta uqui garrietan marcatu cinarocun beçala, erraten cindubela : Orhoit çaitetze nitaz hori eguinen duçuben gucian. Eguiten dut beraz, ene bihotceco Jainco maitea, çuc ene arimarat ethortceco duçun desirari satisfacione emateco, çurequin juntatceco, bekhatuari ihes eguiteco, berthutearen praticaren indarren hartceco, eta neure ez deustasunaren eçagutceco.

*Andredena. Mariari eguiteco*

*Othoitça.*

**O**Birjina gloriosa! ene Salbatçailearen eta ene Erredemptorearen Ama, duçun pietate be-



khatoros miserable hunetaz: ô Trinitate Sainduaren lore ederra! eguiçu nitaz othoitz, çure medioz besarca deçadan, amudio perfet batez, çure Seme ene Salbatçaillea, eta eguin nadin haren gogaraco arima bat. O ceruco Aingueru dohaxuac! othoi, lagun naçaque, parabisuco Saindu eta Sainda guciac, nitaz othoitz eguiçue, ene Jaincoaren gogara comunione hau eguin deçadantçat.

*Bihotz altchapena Jesusi.*

**C**ATO, ene Jaun maitea, çato, eta compli çaçu ene baithan eguin gogo duçun obra miragarria.

O ene bihotceco Jainco maitea! ez deçaçula guehiago luça ene-ganat ethortcea.

Ah! ene Jaincoa, ala nic baitut desira handia çure errecibitceco!

Aithortcen dut ez naicela creatura miserable bat baicen, bainan çu oneguia çare, ene miseriec ene-ganat ethortcetic guibelatceco.

86 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Çato, othoi, ene Salbatçaile maitea, çu berantexia nago.

Ene Jaincoa, çato ene arimarat, eta santifica çaçu.

Ene Jaincoa, ene bihotçaren jabe eguin çaite eta garbi çaçu.

Ene gorphutcean sar çaite eta guarda çaçu, eta ez naçaçula secular çure amudiotic aparta.

O su sacratua! erre çaçu cere causitcen baituçu ene baithan çure gogara ez denic, eta çure graciari eta çure amudioari traba eguin ahal dioçoquenic.

O ceruco mana! indaçu çure gustu ona, munduco placer gucientçat higuintça oso bat içaiteco.

Erraçu guero *Confiteor*, eta hirur-etan :

**J**AUNA, ez naiz ni digne çure errecibitceco; bainan erraçu çure hitz saindua, eta ene arima içanen da sendatua.

Sinhesten dut, ene Jaincoa, fede bici batez, Ostia saindu horre-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 87

tan dela cerratua çure içaite gucia.

Adoratcen çaitut posible den humiltasun eta errespeturic handienarequin, Jainco amudio handitacoa.

---

*Sacramendu Saindua errecebitu ondoan eguiteco OTHOITÇA.*

**O** Amudio ecin estimatuzcoa! Ontasunezco ixasoa, ithurri ecin agor çaitetzquena, ene barnean ohoratcen eta adoratcen çaitudan Ostia Sacratua, bihotz bat gutiegui da çure maitatceco, Jesus dibinoa, eta boz bat halaber gutiegui da çure ontasun handiaren publicatceco.

O ene Salbatçailea, eta ene arrotz maitea! ala nic çuri obligacione handia baitarotçut, ni beçalaco creatura pobre bati eguin dioçun bisitaz!

Eguin darotaçun ontasun eta ohore handi horren eçagutçatçat, çutazco ofrenda bat eguiten darotçut çuri ceroni.

88 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Ez, ez dut guehiago bici nahi, bainan Jesus nahi dut ene baitan bici dadin.

Jesus enea da, eta ni harena eternitate gucico.

O amudioa, ô amudioa! secular ez guehiago bekhatuic.

Ez çaiquit secular ahantcico, Jesus-ene Salbatçaileac eta ene arrotz maiteac eguin darozquidan fagore eta ontasun ecin erran beçain handiac.

*Adoracionezco Acta.*

**A**H! Jauna, çu creatura miserable hunen-ganat ethortcea, sobra gracia eguitea da; Aingueruei baino guehiago eguin darotaçu. Hec ez dute çu ceruan ikhusteco eta adoratceco dohaxutasuna baiçen, bainan ni çure substanciaz hazten nauçu, fagore handi bat da hori enetçat, eta çure amudioaren gaindura bat nahi içatu baituçu sarthu ene gorphutcean. Han bada, ene Jesus, adoratçen çaitut, hala nola Aingueruec ce-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 89  
ruan eguiten baitçaituzte ; eta na-  
go çure presentcia sainduan er-  
respetu eta humiltasun handi bat-  
equin.

*Esquerren errendatceco Acta.*

**B**IRJINA Saindua, çuc çure sa-  
bel sacratuan ekharri duçun  
Jesus bera da orai ene baithan.  
Cergatic ez dut bada nic hambat  
amudio eta garbitasun nola çuc?  
Lagun naçaçu, othoi, çure Seme  
amulsuac eguin darotan gracia  
handi hunetaz esquerren ematen.  
Ceruco Aingueruac, parabisuco  
Saindu eta Sainda guciac, çuequin  
juntatcen naiz, Jesusi esquerren  
errendatceco eguin darotan gra-  
ciaz. Çuc ceronec eman darotaçun  
Seme bera ofrendatcen darotçut,  
ontasun handi horren eçagutçat-  
çat.

*Esquerren errendatceco Acta.*

**J**ESUS adoragarria, eguia da be-  
raz ene baithan çarela! naicen  
bada ni ere, othoi, choilqui çure  
baithan ; ez çaitecela secular il-

## 90 EXERCICIO IZPIRITUALA.

khi sarthu çaren bihotz hortaric.

Ene bihotça, othe daquit maitatcen? orai hemen erre behar haiz; contsumi adi dohaxuqui Jesusen amudioaren labe sacratu horretan. Ene arimaren Salbatçaile maitea, gambia naçaçu çureganat ez nadin ni guehiago bici, baina çu bici çaitecen ene baithan: ene pentsamendu, ene hitz eta ene obra guciac, diren niri eman çaitan Jesusenac, eta ez eneac. Prometatcen darotçut, ene Jesus, secular çure aldera leial içanen naicela; ez dut amistantçaric nahi içan guehiago çure gloriaren etsaiequin; ukho eguiten diotet munduari, eta haren plazer faltsoei, deabruari, eta haren tentacione edo seguida gaichtoei, eta çure manamendu choilei jarraiqui nahi natçaie.

**F**INEAN ardiexi dut eta neüre baithan dut ene arimac maitatcen dubena, ez dut perilic espacatcerat utz deçadan. Ez, ez gargoro

EXERCICIO IZPIRITUALA. 91

nahi dut ene bihotça den haren  
presondegui; bainan ene bictoria  
eta ene dohaxutasuna seguratu-  
goac içatea-gatic, amarratuco dut  
borthizqui amudioaren gatheetz;  
eta gal ez deçadantçat, sentinel-  
tçat ematen dut modestia neure  
beguetan, eta discrecionea neure  
mihian. Badaquit ene Jesus mai-  
teac ez dubela bihotz partitu bat  
nahi; arroçoin da beraz eman dio-  
çadan neure bihotz osoa. Ez so-  
lamente bihotça, Jesus guciz mai-  
tagarria, bainan oraino ematen da-  
rotçut neure arima, neure gor-  
phutça eta naicen gucia. Errecibi-  
çau beraz çurea dena, eta junta  
çau halaco façoinez çurequin,  
munduco creaturec çure-ganic a-  
parta ez deçaqueten beçala.

**E**SQUERRAC eta laudoriac erren-  
datcen darozquitçut, Aita gu-  
ciz puchanta eta saindua, ceren  
merecitcen ez dudalaric ni indig-  
noa, nahi içatu bainauçu bazca-  
tu, eta rasasiatu çure Seme Jesu-

92 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Cristoren gorphutz eta odol pre-  
ciatuaz.

Othoizten eta suplicatcen çai-  
tut bada, comunione saindu hau  
içan dadin ene bekhatuen barkha-  
mendutan, eta gracion errecibit-  
cen duten arimetan eguiten du-  
ben efectu bera ene baithan ere  
eguin deçan.

---

*San Thomasec Jaincoari eguiten  
cioen OTHOITÇA eta batbede-  
rat eguitecoa Comunione on-  
doan, eta noiz nahi den.*

**J**AINCO guciz puchanta eta mise-  
ricordiosa, eguidaçu gracia çu  
berotasun handi batequin desirat-  
ceco, çuri agradatcen çaiçquit-  
çun gauçac prudentcia batequin  
bilhatceco, eta argui handi bate-  
quin beresteco, eta fidelitate han-  
di batequin hequien complitceco,  
çure içen sainduaren gloriaco. Ene  
Jainco Jauna, erreguela çatçu ene  
bicitce gucia eta ene accione gu-  
ciac. Manatcen darotaçu compli



## EXERCICIO IZPIRITUALA. 93

detçadala, çure Ebanjelioan sei-  
nalatu eta marcatu darozquidat-  
çun eguinbideac; eman dieçadaçu  
çuc eguin detçadan desiratcen du-  
çun gaucen eguiteco podorea. E-  
guidaçu gracia hequien eçagutce-  
co eta complitceco borondatea-  
ren içatea; eta segurqui complit-  
ceco eguin behar nituzquen beça-  
la, ene eta arimaren salbamendua-  
ren abantailetan diren beçala. Çu-  
re-ganat joan behar dudan bidea  
causi deçadan segura, chuchena  
eta perfeta, eta halaco façoinez  
guida nadin onean eta gaitcean,  
non prosperitateac ez naçan ur-  
guilu, eta aflicioneari ez naquion  
utz sobera abatitcerat; prosperi-  
tatean esquerrac eman dietçaquit-  
çudan, eta aflicionetan cerbitça  
çaitçadan pacientciarequin. Ez na-  
çan deusec ere aleguera ez trista,  
çure-ganat hurbiltcen edo çure-ga-  
nic urruntcen nauten gauec bai-  
cen. Ez deçadan desira çuri pla-  
cer eguitea baicen, eta ez naçan

## 94 EXERCICIO IZPIRITUALA.

deusec beldur çuri desplacer eguiteac baicen. Eguidaçu gracia, deusic ez deçadan entrepreni caritatezco mobimendu batez baicen: çure cerbitçuco diren gauzez gaineracoei, beguira dioçotedan, ez deus batçuei beçala, eta gauça hil batçuei beçala; eta ez detçadan gauça onac eguin usantça batez, bainan eguin detçadan guciac çure amoreac-gatic zelo handi batequin. Çure handitasunaren amudioac eta çure eternitateac mesprezaraci dietçaquidan munduco gauça pasajerac eta iraupenic ez dutenac; precia eta estima detçadan çure-ganic heldu çaiçquidan gauça guciac, eta çu, ene Jaincoa, guciac baino preciatuago. Gauça guciec unha naçaten eta desgusta; çu gabe gauça guciac insuportable causi detçadan, eta icigarri, çutaz campoan, placer handi bat causi deçadan, çuretçat entreprenitcen diren trabailuetan; eta ez deçadan causi trabailuric

EXERCICIO IZPIRITUALA. 95

eta penaric baicen errepausu be-  
rean ere, çure baithan hartua ez  
denean. Eguidaçu gracia, ene Jain-  
coa, ene bihotça çure-ganat alt-  
chatceco maizco aspiracioneez,  
eta ene falten eçagutceco dolore  
handiarequin, eta resolucione-  
quin hetaz correjitceco; eta içan  
nadin humil disimulacioneric ga-  
be, içan nadin aleguera arintasu-  
nic gabe, içan nadin triste sobera  
abatitu gabe, içan nadin grabe lan-  
guiaduratic gabe, içan nadin e-  
guiazco falxeriaric gabe, içan de-  
çadan çure beldurtasuna desespe-  
ratu gabe, içan deçadan çure bai-  
than esperantça, confidentcia pre-  
sumpcionezco bat gabe, içan na-  
din garbi liçuntasunic gabe, cor-  
rumpitu gabe, erreprendi deçadan  
ene guiristino laguna coleratu ga-  
be, maita deçadan desgusatu ga-  
be, edifica deçadan neure exem-  
pluaz eta neure hitcez banitateric  
gabe, içan nadin obedient escu-  
saric bilhatu gabe, eta errepusta-

## 96 EXERCICIO IZPIRITUALA.

ric eman gabe, içan nadin pacient murmuratu gabe. Indaçu, ene Jesus ezta, bihotz fermu eta deusec ecin mobituzco bat, munduco afeccione guciec lurreco gaucetarat eramán ez deçaqueten bat; bihotz hain jeneros eta ecin bentçutuzco bat, persecucione guciec, çure baithan duben confidentcia, gal araz ez dioçoqueten bat; bihotz gauça gucietaric hain libro den bat, munduco placer guciec çure-ganic aparta ez deçaqueten bat; finean bihotz hain chuchen eta garbi bat, intentcione gaichto guciec çure bidetic athera ez deçaqueten bat. Acorda dieçadaçu, Jauna, argui bat, ceinaren bidez eçagut baitçaitçaquet; diligentcia bat, ceinaz bilha ahal baitçaitçaquet; çuhurtcia bat, ceinaz causi ahal baitçaitçaquet; bicitceco conduita bat, ceinaz placer e-guin baitieçaçuquet; fede bat, ceinaz jarraiqui ahal baitçaitçaquet; eta confidentcia bat; ceinaz per-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 97

fetqui posedi ahal baitçaitçaquet.  
Eguidaçu gracia partale içateco  
çure sofritcetán eta çure dolore-  
tan, penitentiaren trabailuz un-  
gui balia nadin bicitce hunetan,  
çuc eguiten darozquidatçun onta-  
sunez; eta ceruan, çure dohaxu-  
tasunaz goçatceco çure gloriaren  
comunicacioneaz.

*Aldareco Sacramendu Sain-  
duaren LETHANIAC.*

**J**AUNA, urrical gaquizquitçu.  
**J**esu-Cristo, urrical gaquizquitçu.  
Jauna, urrical gaquizquitçu.  
Jesu-Cristo, adi gaitçatçu.  
Jesu-Cristo, entçun gaitçatçu.  
Ceruetaco Aita, ceina baitçare Jaincoa,  
urrical gaquizquitçu.  
Semea, munduaren Salbatçailea, ceina  
baitçare Jaincoa,  
Izpiritu Saindua, ceina baitçare Jain-  
coa,  
Trinitate Saindua, ceina baitçare Jain-  
co bakhoitz bat,  
Ogui bicia jautsi baitçare cerutic,  
Jainco estalia, eta Salbatçailea,  
Berecien oguia,

Urrical gaquizquitçu.

# 98 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Ogui guicena eta Erregueen placer go-  
çoa, urrical gaquizquitçu.

Sacrificio bethi eguiten dena,

Ofrenda chahua,

Bildots tatcha gabea,

Mahain guciz garbia,

Aingueruen janharia,

Mana estalia,

Jaincoaren miracuiluen orhoitçapena,

Ogui substanciaz goragocoa,

Verbo haragui eguin çarena,

Gure baithan egoten çarena,

Ostia Saindua,

Benedicionearen calitça,

Fedearen misterioa,

Sacramendu guciz haltoa, eta guciz  
ohoragarria,

Sacrificio gucietaric sainduena,

Hilei eta biciei graciaren eguile egui-  
azcoa,

Antidota cerucoa gu bekhatuetaric  
beguiratceco,

Miracuilu gucietan den miracuiluric  
espanta garriena,

Jaunaren pasionaren orhoitçapen gu-  
ciz sacratua,

Bethetasun guciez goragoco dohaina,

Amudio dibinoaren seinale printci-  
pala liberalitate dibinoaren abun-  
dantcia,

Misterio guciz sacratua eta haltoa,

Urrical gaquizquitçu.

Urrical gaquizquitçu.

Urrical gaquizquitçu.

EXERCICIO IZPIRITUALA. 99

Immortalitateco erremedioa, urrical ga-  
quizquitçu.

Sacramendu harrigarria, eta biciaren  
emailea,

Sacrificio ez odolstatua,

Verboaren bothereaz, haragui eguin  
içatu çaren oguia,

Gombidatçailea eta janharria,

Banquet guciz ezta, ceinetan Aingue-  
ruac baitire cerbitçariac,

Pietatearen lōkharria,

Ofrendatçailea eta ofrenda,

Eztitasun izpirituala, ithurri propioan  
dastatcen çarena,

Arima sainduen janharria,

Jaunaren graciaen hiltcen direnen bia-  
ticoa,

Ethorquiçuneco gloriaren bahia,

O Jaincoa, fagora gaitçatçu.

Entçun gaitçatçu, Jauna.

Jaincoa, fagora gaitçatçu.

Entçun gaitçatçu, Jauna.

Çure gorphutça eta çure odola indig-  
nequi errecibitcetic, beguira gait-  
çatçu, Jauna.

Haraguiaren guticiatic,

Bicitcearen superbiotasunetic,

Bekhatuen occasione gucietaric,

Çure dicipuluequin bazco hunen ja-  
teco desira cinduenaz,

Çure dicipuluei oinac garbitu cinot-

Urrical gaquizquitçu.

Beguira gaitçatçu.

# 100 EXERCICIO IZPIRITUALA.

çaten humilitate handiaz, beguira gaitçatçu, Jauna.

Sacramendu Saindu hau eguin cinduen, caritate handiaz, beguira gaitçatçu &c.

Gure-gatic çure gorphutz sacratuan hartu cintuen bortz çauriez, beguira gaitçatçu, Jauna.

Gu bekhatoreac içana-gatic, entçun gaitçatçu, Jauna, placer baduçu.

Othoizten çaitugu berretceaz, eta conserbatceaz sacramendu miragarri hunen sinhestea, ohorea eta debocio-nea,

Othoizten çaitugu beguiratceaz here-  
sia, tromperia, eta bihotceco itsu-  
mendu gucietaric,

Othoizten çaitugu heriotceco orenean  
biatico huntaz, preparatceaz, eta  
confortatceaz,

O Jaincoaren Semea,

Jaincoaren bildotsa, ceinac khentcen bai-  
titutçu munduaren bekhatuac, barkha  
dietçagutçu, Jauna.

Jaincoaren bildotsa, ceinac khentcen bai-  
titutçu munduaren bekhatuac, entçun  
gaitçatçu.

Jaincoaren bildotsa, ceinac khentcen bai-  
titutçu munduaren bekhatuac, urrical  
gaquizquitçu.

Jauna, urrical gaquizquitçu.

Jesu-Cristo, urrical gaquizquitçu.

Entçun gaitçatçu.



Jauna, urrical gaquizquitçu.

Jesu-Cristo, adi gaitçatçu.

Jesu-Cristo, entçun gaitçatçu.

*Othoitz eguigun.*

**O** Jaincoa, ceinac Sacramendu miragarri hunen azpian, çure pasionearen eta çure heriotcearen orhoitçapena utci baitarocuçü, othoizten çaitugu humilqui guri eguiteaz gracia, hala ohora detçagun çure gorphutçaren eta çure odolaren misterio sacratuac, non bethi gure baithan senti detçagun çure salbamenduaren fruituac. O Jaincoa! ceina bici eta jaun baitçare Aitarequin, Izpiritu Sainduaren batasunean, mendeen mende gucietan. Halabiz.

Galdeguiotçu hemen Jaincoari Birjina Sainduaren arartecotasunez, desiratcen ditutçun gauça guciac, nahiz izpiritualecoac eta nahiz temporalecoac, nahiz çuretçat eta nahiz bertcerentçat; ez duqueçu occasione hobegoric Jaincoaren graciaç çure gannat tiratceco comunione on baten demboracoa baino.

*Andredena Mariaren*

## LETHANIAC.

**J**AUNA, urrical gaquizquitçu.

**J**esu-Cristo, urrical gaquizquitçu.

Jauna, urrical gaquizquitçu.

Jesu-Cristo, urrical gaquizquitçu.

Jesu-Cristo, adi gaitçatçu.

Jesu-Cristo, entçun gaitçatçu.

Ceruco Aita, ceina baitçare Jaincoa, ur-  
rical gaquizquitçu.

Semea, munduaren Salbatçailea, ceina  
baitçare Jaincoa, urrical gaquizquitçu.

Izpiritu Saindua, ceina baitçare Jaincoa,  
urrical gaquizquitçu.

Trinitate Saindua, ceina baitçare Jainco  
bakhowitz bat, urrical gaquizquitçu.

Maria Saindua, othowitz eguiçu guretçat.

Jaincoaren Ama Saindua,

Birjinen Birjina Saindua.

Jesu-Cristoren Ama,

Gracia dibinoaren Ama,

Ama guciz chahua,

Ama guciz castoa,

Ama bekhaturic içatu ez duçuna,

Ama tatcharic içatu ez duçuna,

Ama maitagarria,

Creatçailearen Ama,

Salbatçailearen Ama,

Birjina guciz prudenta,

Birjina ohoragarria,

Othowitz eguiçu guretçat.

EXERCICIO IZPIRITUALA. 103

Birjina laudagarria, othoitz eguïçu guretçat.

Birjina puchanta,

Birjina malsoa,

Birjina leiala,

Justiciaren miraila,

Çuhurtciaren tronua,

Gure bozcarioaren causa,

Untsi izpirituala,

Untsi ohoragarria,

Arrosa misteriozcoa,

Daviten dorrea,

Dorre borthitça,

Urrezco palacioa,

Baquearen arca,

Ceruetaco portalea,

Goiceco içarra.

Erien osasuna,

Bekhatoreen ihes lekhua,

Doloratuen contsolatçailea,

Guiristinoen fagorea,

Aingueruen erreguina,

Patriarkhen erreguina,

Profeten erreguina,

Apostoluen erreguina,

Martiren erreguina,

Cofesoren erreguina,

Birjinen erreguina,

Saindu gucien erreguina,

Gu bekhatoreac içana-gatic, entçun gaitçatçu, Andrea, placer baduçu.

Othoitz eguïçu guretçat.

Othoitz eguïçu guretçat.

104 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Othoizten çaitugu guri ardiesteaz eguiaz-  
co urriquimendua, entçun gaitçatçu,  
Andrea, placer baduçu.

Othoizten çaitugu ardiesteaz Eliça Sain-  
duari, eta guiristino populu guciei ba-  
quea, eta batasuna,

Othoizten çaitugu ardiesteaz gure Aita Entçun gaitçatçu.  
Saindu, çure cerbitçari, N. I., eta  
gure Prelatei, eta Eliça guciari gra-  
cia dibinoaren airea,

Othoizten çaitugu ardiesteaz guri eta  
guiristino Printce guciei baquea, eta  
osasuna, eta etsaiei beheramendua,

Othoizten çaitugu ardiesteaz fidelen  
Arima defuntu guciei bethiereco  
pauza,

O Jaincoaren Ama,  
Jaincoaren bildotsa, ceinac khentcen bai-  
tutçu munduaren bekhatuac, barkha  
dietçagutçu, Jauna.

Jaincoaren bildotsa, ceinac khentcen bai-  
tutçu munduaren bekhatuac, entçun  
gaitçatçu.

Jaincoaren bildotsa, ceinac khentcen bai-  
tutçu munduaren bekhatuac, urrical  
gaquizquitçu.

Jauna, urrical gaquizquitçu.

Jesu-Cristo, urrical gaquizquitçu.

Jauna, urrical gaquizquitçu.

Jesu-Cristo, adi gaitçatçu.

Jesu-Cristo, entçun gaitçatçu.

*Othoitz eguigun.*

**O** Jauna! othoizten çaitugu ahalic humilquiena, çure graçiaren hedatceaz gure bihotceta-  
ra; gu, ceinec, Aingueruaren er-  
rarez, eçagutu baitugu Jesu-Cris-  
to çure Semearen incarnationea,  
arriba gaiten, haren pasionearen  
eta haren heriotcearen merecimen-  
duez resurrecionearen gloriara,  
Jesu-Cristo Jaun beraren fagorez.  
Halabiz.

---

ASPIRACIONE DEBOTAC *nahiz Co-  
munione ondocots, eta noiz na-  
hi denecotz.*

**E**NE Jesus ezta, egundaino e-  
kharri darotaçun amudioa-ga-  
tic, eguidaçu gracia maita çaitça-  
dan neure bicitce gucian, ceruan  
amudioa, amudioarentçat errenda  
dieçadaçuntçat.

O ene Jauna, ene Jaincoa, eta  
ene Aita! nola ecin bainaiteque  
çu gabe, eta hala ecin duquet  
deusen nahiric, eta ecin deusic

obra deçaquet çu gabe; nola çuc sustengatcen baituçu ene iaçtea eta ene substantcia, sustenga çatçu halaber ene pentsamenduac, eta bethe çatçu ene accioneac; nola çu gabe ecin bainaiteque ez deçadantçat pentsa, ez deçadan erran eta ez deçadan deus ere e-  
guin-çure arabera baicen.

O Jaincoa, amudiozco eta on-  
tasunezco Jaincoa! eguidaçu gra-  
cia, çu ceronen amudioa-gatic çu-  
retçat bici nadin, çure-ganic eta  
çure baithan bici naicenaz gueroz.

Ene Salbatçaile maitea, çu çu-  
re Aitarena çaren beçala, eguin  
naçaçu ni ere gucia çurea.

Ene Jauna eta ene Jaincoa, cer-  
desira ahal deçaquet çutaz cam-  
poan?

Jesus, ceruco eta lurreco amu-  
dioa, noiz içanen naiz osoqui gu-  
cia çurea, çu çure Aitarena çaren  
beçala?

Aita misericordiazcoa; eguin na-  
çaçu çure Semeac merecitcen du-

EXERCICIO IZPIRITUALA. 107

ben beçalacoa, eta çure Izpiritu Sainduac disiratcen duben beçalacoa.

Ene biciaren Jaincoa, noiz hilen naiz neure baithan, osoqui çure baithan bicitceco?

Ene Jaincoa, har naçaçu cernec, ez daquidanaz gueroz nola eman behar natçaitçun.

Ene Jaincoa, baldin guerthatcen baçait deus ere nahi içateratçu baicic, orai beretic ukho eguiten diotet, protestatcen dut ez dudala deus ere irabazteco ez galtceco çure ondoan.

O ene arimaco Jaincoa! ez deçaçula permeti guehiago içan nadin, çurea ez içatecotz, çurea naicen beçala, eta çutaz bici naicen beçala.

Èz dut nahi beguiric çuri beguiratceco baicic, ez beharriric çure aditceco baicic, ez mihiric çutaz mintçatceco baicic, ez bihotcic çutaz pentsatceco baicic, ez escuric çure cerbitçatceco bai-

108 EXERCICIO IZPIRITUALA.

cic, ez oinic çure bilhatceco baicic, ez gorphutcic çuri ofrendatceco baicic, ez biciric çuri sacrificatceco baicic.

Amudiozco Jaincoa, indaçu caritatea; Jainco guiçon eguina, indaçu humiltasuna.

Jainco gucia izpiritua, indaçu garbitasuna.

Puchanta, infinitua, borthitz çaçü ene flaqueça; çuhurtcia eternala, argui çatçu ene ilhunbeac; ontasun pare gabea, barkha dietçaquidatçu ene maleciac.

Ontasun infinitua, berandu eçagutu çaitut; ontasun pare gabea, berandu maitatu çaitut.

Çu maite ez çaituenac, cer maitatcen du? çu admiratcen ez çaituenac, cer admiratcen du?

Maïtatu nahi naiz, ez neuregatic, bainan bai ceren çurea naicen; icanen dut artha neure presunaz, ceren çuc nahi duçun, eta ceren çuc manatcen darotaçun.

Dohaxuago estimatcen naiz çu-



re dohaxutasunean, ecen ez dohacabe ene miserian; çure içateac ematen darotan contentamenduac, haguitz garaitcen du ene içateac ematen darotan desgustuba. Ene Jaincoa, içan çaute beraz bethi çarena, eta nitaz eguiçu bertce bat.

Çuri eta çure baithan, çutaz eta çuretçat diren, ene Jaincoa, gauça guciac.

Ordena çaçü munduaz placer duçun beçala; eguiçu nitaz eta çure creatura guciez, placer duçun gucia; altcha çaçü, behera çaçü, cela çaçü, senda çaçü, gaztiga çaçü, errecompentsa çaçü. İçan çaute placer duçun beçalacoa Aingueruen eta guiçonon alderat, ceruan, lurrean, ixasoan, demboran, eta eternitatean, eta lekhu gucietan; eta bethi aithortuco dut çure probidentcia dibiñoa, eta bethi çure borondatean egonen naiz, ene arimaren parabisan beçala, sustengatcen dudala gucien alderat, eta gucien

## 110 EXERCICIO IZPIRITUALA.

contra, eguia segur hori; ecin eguin deçaqueçula nic nahi duda-na baicen, ceren nahi baititut çuc eguinen ditutçun guciac.

Jaincoaren borondatearequin conformatcea, bide labor bat da, gu berthute handi baterat altcharacitceco, eta gure arima baque, eta sosegu handi batean emateco. Guc munduan eguin ahal deçaquegun obraric handienetaric bat da, gure borondateari ukho eguinic Jaincoaren borondatearen eguitea. Ala baitu arima batec consolacione handia, gauça guciac Jaincoaren borondatetic errecibitcen dituenen; eta oraino hirur probetchu admirable eguiten ditu. Lehem-bicicoa da, Jaincoac ikhusten duenean haren escu saindutic gauça guciac hartcen ditutçula, obligatua beçala sentitcen da çutaz artha handi baten hartcerat; erran nahi da, baduela artha çuri bere gracien emateco. Bigarrena da, ez dela deus ere Jaincoaren graciei traba guehiago eguiten diotenic, gure desira eta afecione desordenatuac baino; eta noiz eta ere çure borondateari ukho egui-

## EXERCICIO IZPIRITUALA. 111

ten baitioçu, estatutan çare ceruco benedicioneen errecibitceco. Hirur-garrenean, conformitate horretan, çure bihotceco baque handi bat ardiesten duçu. Contsidera çaqu bada Jaincoa gure Aita dela, eta baduela gutaz artha bere umeez beçala, eta gure borondatea quitatcen dugunean haren cerbitçu sainduco, ez duela seculan permetituco deusetan ere trompatuac içan gaitecen. Jesu-Cristo, çuhurra eta sabanta cen arren, eta faltaric ecin eguin deçaquena, hala ere bethi aitaren borondatea eguin nahi çuben. Jaquin çaqu ecin faltaric eguin deçaqueçula, Jaincoaren amoreaga-tic bertceren borondatea eguiten duçuin, eta bereciqui çure baithan podore duten presunena, Jaincoa ofent-satua ez den gauça gucietan. Duçun bada hitzcuntça bat beçala, bethi ere erraten duçula:

Ene Jaincoa, eguin bedi çuc placer duçun gucia, eta çuc placer duçun beçala.

Edo Jondoni Pauloc beçala:

Ene Jaincoa, cer placer duçu eguin deçadan?

112 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Ene Jaincoa, çure-ganat uzten ditut neure gorphutça, arima, onthasunac, ohoreac, bicia eta heriotcea, disposa deçaçuntçat daquiçun beçala, eta plazer duçun beçala.

Erraçu oraino Davitequin:

Ene Jaincoa, çurea naiz.

Eta bereciqui erraçu Jesu-Cristo bere hagonian erran duena:

Aita, eguin bedi çure borondatea, eta ez enea.

Eta hala irakhaxi darotçu *Pater noster* terren ere:

Eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurrean ere,

---

*EXEMPLU eder bat Guizon pobre batec Jaincoaren borondatearequin çuben conformitatearen gainean.*

**B**ERTCE aldiz, Erroman cen Doctor theologal fama handitacobat, ceina çortci urthe bethez egotu baitcitçaion othoitcez Jain-

coari, arren causi araz cioçon gu-  
 çon bat, ceinac irakhax ahal bait-  
 cioçoquen cein cen ceruco bide-  
 ric laburrena. Egun batez, haguiz  
 beroqui bere othoitcean çagoela,  
 entçun çuen boz bat erraten cio-  
 ela : *Oha Jondoni Petriren Eli-  
 çara, eta athe sainduan causitu-  
 co duc hic desiratcen ducan gui-  
 çona.* Joaten da berehala Doctor  
 hori Eliça hartarat, eta causitcen  
 du athe sainduan pobre escale bat,  
 çauriz gucia bethea eta tresna  
 tchar batçuec soinean; eta erra-  
 ten dio Doctorac : Jaincoac egun  
 on diçula, adisquidea.

Pobreac ihardesten dio : Jauna,  
 ez dut gogoan egundaino egun  
 gaichtoric içaturic.

Doctorac erraten dio : Adisqui-  
 dea, desiratcen darotçut bicitce  
 dohaxu bat.

Pobreac ihardesten dio : Jauna,  
 ez naiz egundaino dohacabe içatu.

Doctorac oraino hobequi fro-  
 gatcea-gatic, erraten dio : Adis-

114 EXERCICIO IZPIRITUALA.

quidea, Jaincoac diçula gracia çure desira gucien complitceco.

Pobreac ihardesten dio: Jauna, ez dut errencuratceco sujetic, gauça guciac neure gogara arribatcen ç aizquidanaz gueroz.

Doctorac erraten dio: Adisquidea, nola bada ahal ç aitezque horren dohaxu, estatu miserable horretan aguertcen ç arenaz gueroz? Othoitz eguiten darotçut, mintça ç aquizquit clarquiago nic galdeguin darozquitçudan gaucen gainean.

Pobreac ihardesten dio: Axequin dut, Jauna, emanen darotçut satisfacione. Erran darotaçu egun ona desiratcen darotaçula, ihar dexi darotçut ez dudala gogoan egundaino egun gaichtoric içaturic, ceren haguitz bainaiz content naicen estatuan, Jaincoac hala nahi içan duenaz gueroz; eta ene dohaxutasuna heldu da naicen condicionean content içatetic, eta munduaz casuric ez eguitetic. Nic

EXERCICIO IZPIRITUALA. 115

mespreçatcen ditut munduco in-  
tresac, ohoreac, axeguinaç, eta  
placerac: hetan bere bihotçac e-  
manac dituzten jendeac, fortuna  
onac alegueratcen ditu, eta for-  
tuna gaichtoac tristatcen; bainan  
nic neure desirac ceruco Aitaren  
baithan emanac ditut, ceinac go-  
bernatcen baititu mundu hunetan  
eguiten diren gauça guciac. Han-  
dic erraten dut ez naicela egun-  
daino dohacabe içatu, deus ere  
arribatcen ez çaitanaz gueroz neu-  
re nahiaren arabera baicen. Bal-  
din goseac penatcen banau, Jain-  
coa laudatcen dut probidentcia  
guciaren Aita beçala; baldin hot-  
çac, beroac, elhurrac, eta cein  
nahi den dembora gaichtoc, pre-  
satcen banaute, orobat Jaincoa  
glorificatcen dut: baldin mespre-  
çatua banaiz, benedicatcen dut ha-  
ren Majestate dibinoa, ceren se-  
gur bainaiz Jaincoaren nahitic edo  
permissionetic direla gauça guciac;  
eta harc eguiten dituen gauçac,

## 116 EXERCICIO IZPIRITUALA.

ecin ditezquela onac baicen. Hargatic alegueraqui errecibitcen ditut, Aita on baten-ganic heldu direnac beçala; eta nola ez baitut deus nahi harc placer duena baicen, handic erraten dut ez çaitala deus ere arribatcen neure desiren arabera baicen. Segur naiz mundu hunetaco dohaxutasuna dagoela gure borondatea Jaincoaren borondatearequin conformatcean, ecen haren borondatea ecin diteque ona eta justua baicen, eta gauça guciac eguin detçaquena guc deusic ecin daidiquegun lekhuán. Hargatic ez dut bertce estudioric eguiten Jaincoaren borondatearequin conformatcecoric baicen; eta ez dut bertce artharic harc placer duen gucia bihotz osoz nahi içatecoric baicen: eta manera hortan, ecin naiteque dohacabe; harc nahi duena, nic ere nahi dudanz gueroz; eta harc nahi ez duena, nic ere nahi ez dudanz gueroz.



Doctorac erraten dio : Adis-  
quidea, çuc erran darozquidatçun  
gauça horiec, guciac onac dire ;  
bainan çure erresignacione gucia-  
requin, erradaçu, othoi, cer eguin  
cineçaquen baldin Jaincoac dam-  
natu nahi bacintu ?

Pobreac ihardesten dio : Jaquin  
çaçu, Jauna, baitudala bi beso  
choil indar handitacoac ; bat da  
humiltasuna , ceinarequin osoqui  
sumetitu bainatçαιο Jaincoari ; eta  
bertcea da caritate bero bat , cei-  
naz maitatcen baitut Jaincoa neu-  
re ahal guciatz : eta baldin damna-  
tu nahi banindu, bi beso hetaz be-  
sarca neçaque ; eta hain junt it-  
chiqui nioçoque , non joan ninte-  
quen lekhu gucietarat neurequin  
tira baineçaque ; eta non nahi den  
nahiago nuque içan Jaincoare-  
quin , ecen ez parabisuan Jaincoa  
gabe.

Doctor theologo hori espantat-  
cen da guiçon pobre horren erre-  
pustaz , eta jujatcen du hura dela

118 EXERCICIO IZPIRITUALA.

hari ceruco bideric laburrena irakhaxi behar dioen guizona; eta oraino hobequi nahiz içan arguitua doctrina eder hartaz, erratendio Doctorac: Eta, adisquidea, nondic ethorri çare lekhu humentarat?

Pobreac ihardesten dio: Jauna, heldu naiz Jaincoa-ganic.

Doctorac erratendio: Non causitu duçu Jaincoa?

Pobreac ihardesten dio: Causitu dut creaturac utci ditudanean.

Doctorac erratendio: Eta non utci duçu Jaincoa?

Pobreac ihardesten dio: Utcidut bihotçac garbi eta borondateona duten jendeetan; hura da Jaincoari lakhetcen çaion lekhu, eta hari agradatcen çaion egoitça.

Doctorac erratendio: Oraino, adisquidea, erradaçu, othoi, nor çaren çu?

Pobreac ihardesten dio: Nor nahi den naicen, Jauna, hain content naiz neure condicioneaz, non

ez baineçaque gambia munduco Erregueric puchantenarequin; bere buruari ungui manatcen daquiena da Erregue.

Doctorac erraten dio: Eta non da çure erresuma?

Pobreac ihardesten dio: Cerua da ene erresuma, baita ene ariman ere ceinetan iduquitcen baititut neure pasioneac azpian, arroçoinari obeditcen diotela, eta arroçoinac Jaincoari.

Doctorac azquenean erraten dio: Eta nola ethorri çare perfeccion horretarat, eta non ikhasi ditutçu gauça horiec guciac?

Pobreac ihardesten dio: Jauna, ethorri naiz guiçonen combertsacioneari ihez eguinez, eta Jaincoari othoitcez egonez. Ene artharic handiena da neure buruari bortcha eguitea, Jaincoaren borondatearequin enearen juntatceco, eta Jaincoaren borondatearequin dudan conformitate horretan ikhasi ditut gauça horiec guciac.

GUIÇONAREN  
LAU AZQUEN FINAC.

**G**UIÇONAREN lau azquen finac  
Gdire: Heriotcea, Jujamendua,  
Parabisua, eta Ifernua. Ez da bi-  
de seguragoric guiristino bat be-  
re salbamenduaren eguiteco eguin  
bidetarat erakhartceco, horietan  
maiz pentsatcea baino. Iracur ça-  
çu afal ondo guciez aldian pent-  
samendu horietaric bat, çure fa-  
mila guciaren artean, eta erabil  
gogoan ahalic guehiena. Pentsa-  
mendu sainduac den gutiena iz-  
pirituan sartcen badire han guel-  
ditcen dire, eta khachetac ezcoa-  
ren gainean eguiten duben beça-  
la impresione handi bat eguiten  
dute.

*Lehembicico Pentsamendua,*  
HERIOTCEAZ.

1. Guiristino guisa bici ez den  
guiristino batec herioaren beldur

içateco du. Helas! cer contu errenda bicitce mundano baten ondoan, bere inclinacione gaichtoen eta bere pasioneen arabera bici içatu ondoan? Cer dolore ez du behar içan halacoac bere salbamentuaren eguiteco içatu dituben moyanez ez baliatu içateaz, eta hetaz eguin duben mesprecioez Jaincoaren etsai hiltcea? Oi, heriotcearen tristea! ô memento tristea, demboraco placerac finitcen dituben, eta eternitateco pena icigarriac hasten ditubena!

2. Cer nahi guindunque eguin içatu guindunque heriotceco orenean garenean? Eguin deçagun beraz orai orduan eguina causitu nahi guinduquena. Ez da demboraric galtceco; memento bacotcha ahal diteque gure biciaren azque neco mementoa: cembatenaz guehiago bici içatu baitçare, hambatenaz gare thombarat hurbilago.

3. Cer jujamendu eguinen dugu lurreco onthasunac quitatu be-

harco ditugunean? Har deçagun orai conseilu herioa-ganic; hura fidela da, ez gaitu trompatuco. Certaraco othe dire orduban munduco axeguinaç, ohore, edertasun, urre eta cilhar hec? Cer jujatcen da heriotcean hetaz? Bician hequien aparantciac trompatcen gaitu, bainan heriotcean gauçac diren beçala ikhusten dire.

Guiçon biciac munduba estimatcen du, bainan hiltcerat dohanac mespreçatcen du. Cein sinhexi behar dugu? Guiçon bicia, ala hiltcerat dohana? Ala munduba deus guti idurituco baitçaitçu heriotceco orenean, arguituco gaituben flambe baten beguietan! Bainan, *helas!* ez dugu içanen demboraric gure enganamenduen erremediatceco.

Pentsa çaçü orai, berehala hil behar bacindu, cerc eman lieçaçuquen beldurtasunic handiena. Emaçu beraz orai-danic berehala behar den ordena, eta usaçaite

EXERCICIO IZPIRITUALA. 123

egun-danic, accione bacotcharen eguiten hura eguin eta berehala hil behar bacindu beçala.

Menturaz herioa urhats bateandut, guiristino batentçat ez da bi-haramunic.

*Bigarren Pentsamendua,*

ASQUEN JUDICIOAZ.

1. EGUN batez Jesu-Cristoren tribunalaren aiticinean aguertu behar naiz, eguin dudan unguiaren edo gaizquiaren arabera jujatua icateco: ez da Ebanjelioan eguia claragoric hori baino. Sinhestendut eguia hori hain segurqui, nola hilen atçartceco trompeta jotcen jadanic aditu banu.

2. Helas! cer erranen dugu, hambat pentsamendu gaichto, hambat accione gaichto, eta hambat gracia mespreçatu gure beguien aiticinean ikhusten ditugunean? O egunaren terriblea, Jau-naren coleraren eguna, ceinetan condatuac icanen baitire hax hartceric mendreenetarainocoac! Jus-

tuac berac ere neckhez justutçat aguertuco dire, helas! cer içanen da beraz bekhatoreez?

3. Cer sententciaren ustea ahal duque Jainco colerazco baten-ganic, bekhatoros penitentciaric e-guin ez duben batec? O arrasta erdiragarria!

Çoazte, madaricatuac, seculacotz sutarat, ceina baitago preparatua debruarentçat, eta haren aingueruentçat. Eta, Jauna, noraco dire çure maledicionea eman dioçuten dohacabe hec? Norat nahi duçu erretira ditecen çure-ganic urruncen direla? Non causi ahal diteque hain lekhu gaichtoric? Jaincoaren presentciatic desterratua içatea, Jaincoaz madaricatuac içatea, ah! çorioaren tristea!

Imagina çайте orai çarela Jesu-Cristoren tribunalaren aiticinean, eta iracur çaçu, eta pentsa ongui cerc eman lieçaçuquen ahalgue-riaric handiena, eta orhoit çайте



jujamenduco egunean bekhatu-ric  
secretuenac publicoan aguertuco  
direla, baldin hemen penitenciaz  
urratcen ez baitutçu.

Helas! norc iharduquico dio  
Jainco asarratuaren beguitarteari?

Çori gaitça dago bicitceric er-  
reguelatuenarentçat eta onheste-  
narentçat, baldin, ene Jaincoa,  
çure misericordia gabe içaten ba-  
da jujatua.

*Hirurgarren Pentsamendua,*

PARABISUAZ.

1. Parabisua, oi hitçaren abe-  
raxa eta handia! Parabisua erra-  
ten dubenac erraten du gaitz gu-  
cien desterrua, ontasun gucien  
bilduma, Jaincoaren magnificent-  
ciaren obraric handiena, Jesu-  
Cristoren odolaren precioa, gui-  
çonaren desiren complimendu o-  
soa, eta oraino horiec guciac bai-  
no cerbait guehiago da Parabisua.

2. Jaincoa clarqui ikhus bere  
glorian den beçala, Jaincoa mai-  
ta neurriric gabe, Jaincoaz goça,

seculan galtceco beldurric gabe, içan dohaxu Jaincoaren dohaxutasunaz beraz, horra norat beha dauden ene esperantça guciac. Ah! ene desterruco egunac laburtu dire, eta sarri seculacotz içanen naiz ene bihotçac maite dubenarequin.

3. Cer achola da nola nahi garen hemen lurrean, baldin Jesus-equir eta Mariarequin bagare eternitatean? Cer arroçoin dugu errencuratceco, baldin seculaco dohaxutasun bat, pena aphur bat gostatcen baçaicu? Martirec bere odolaren precioan erosi dute cerua, eta hala ere iduritcen citçaien dohainic çutela. Ah! eternitate dohaxua, balaquite guiçonec estimatcen hire balioa!

Asaia çaite çure baithan Jaincoaren ikhusteco desira handi baten formatcerat, eta ceruari behatuz lurrari mespreciorequin beguira dioçoçu. Baldin Parabisuaren pentsamenduaz bethea baci-ne, ez cineçaque munduban causi

deus ere merecimenduric duenic,  
ez hain guti çure espantatceco ca-  
pable denic.

Helas! ene bihotça ez da oso-  
qui satisfatua içanen, ene Jaincoa  
bere glorian ikhus deçaquedan ar-  
tean.

Baldin Parabisuaren irabazteco  
trabailuac icitcen baçaitu, anima  
çaitçan errecompentsaren espe-  
rantçac.

*Laugarren Pentsamendua,*  
**IFERNUAZ.**

1. ALA baiguinduque higuin-  
ça handia Ifernuarentçat, baldin  
aditcen baguintu damnatuen oihu  
doloragarriac! Bestia errabiatuac  
beçala, marrazcaz daude, su eta  
kharren erdian; bere bekhatuez  
acusatcen dire, nigarretan daude;  
bainan berandu çaie, hequin ni-  
garrac etçaizte cerbitçatcen hec  
erretcen dituben subaren handit-  
ceco baicen. Ah! damnatuen pe-  
nitentcia, hire gogorra, damna-  
tuen penitentcia, hire gogorra,

128 EXERCICIO IZPIRITUALA.

damnatuen penitentcia, hire gogorra, bainan probetchu gabe-coa!

2. Seculan Jaincoa ecin ikhus, bethi su batean erre behar, non gure suba ez baita haren itçala baicen; dolore suberte guciac hetan sofritu behar, contsolacione eta pausuric batere gabe, bethi debruac beguien bistan, bethi bi-hotça errabiamenduan eta desesperacionean. Ah! biciaren dohacabea!

3. Dohacabe hec errabiamenduan dire, bere salbamenduen eguiteco hambat occasione on içan ondoan, hec galtcerat uzteaz. Munduban hartu dituzten placeren orhoitçapenac eguiten du hequien penaric handienetaric bat; bainan ez ditu deusec ere guehiago tormentatcen, Jaincoa bere faltaz galdu dutelaco orhoitçapenac baino.

Jaux çaute izpirituz ifernurat, eta galdeguioçute damnatuei cerc harat egoitci dituben, eta interroga orai

EXERCICIO IZPIRITUALA. 129

han cer estatutan diren, eta ikhas çaqu hequien-ganic Jaincoaren beldurtasunean bicitcen, eta ikhus çaqu cer periletan çaren.

Orai axeguin pean pulumpatuac bici çareten arimac, nola jaquinen duçue bicitcen seculaco sutan eta la-metan?

ARIMAREN COMBERTSIONEA.

*Jaincoa-ganat.*

**A**LCHADI, ene arima, alchadi, eta atçar hadi heure salbamenduaz pentsatcerat; ez deçacalla memento bat ere guehiago luça heure combertsionea. Iragan dembora pasatua duc; ethortquiçuna ez duc hire escuan edo hire podorean; ez duc presenteco dembora baicic hireric, eta hura ez duc memento bat baicic, ceina eman baitçaic Jaincoaren cerbitçuan empletatceco, eta eternitate dohaxuaren ardiesteco. Contcebi çac ungui hitz hauquien indarra, *Jainco bat, memento bat, eta eternitate bat.* Jainco bat ceina beguira

## 130 EXERCICIO IZPIRITUALA.

baitago, memento bat ceina es-  
 pakhatcen baitçaic, eternitate bat  
 ceina hire beguira baitago. Jainco  
 bat ceina baita gracia; memento  
 bat ceina ez baita deus; eterni-  
 tate bat ceinetan içanen bai haiz  
 secula seculoroneco ifernuco pe-  
 na icigarri eta dorpheetan, edo  
 secula seculoroneco dohaxu Jain-  
 coaren compainian. Jainco bat  
 hain guti cerbitçatua; memento  
 hura ceina hain gaixqui emple-  
 gatcen baituc; eternitate hain im-  
 portantcia handitaco hura, ceina  
 hasardatcen baituc, eta hirriscu  
 handian ematen. O Jaincoa! ô  
 mementoa! ô eternitatea! O ene  
 Jaincoa! ene bihotçac beguira da-  
 gotçu, ene bihotçac desiratcen  
 çaitu, ene bihotçac bilhatcen çai-  
 tu, den gucia çuri emateco, çuri  
 osoqui sumetitceco, eta gucia çu-  
 taz bethetceco. Othoitz eguiten  
 darotçut, ene Jaincoa, osoqui po-  
 sedi deçagun ene bihotça; eta ca-  
 sa deçagun handic seculacotz be-

khatua, baita halaber creaturent-  
 çat eta neuretçat dudan amudio  
 desordenatua; cerbitça çaitça-  
 dantçat memento guciez hain fi-  
 delqui, non mereci ahal baiteça-  
 quet seculaco dohaxutasuna.

## DIALOGA

EDO ARROÇOINAMENDUA

*Bekhatorearen eta Justuaren  
 artean.*

Hasten da lehenic Bekhatorea, eta dio:

B. **E**GUIN da resolucionea,  
 Utcico dut bekhatua,  
 Penitentcia eguinen dut,  
 Obedituco cerua.

J. Deliberacione ilhuna,  
 Esperantça lastozcoa!  
 Noiz içanen dela uste duc,  
 Hire asquen mementoa?

B. Nigar eguiten duenari,  
 Barkhatcen dio Jaincoac;  
 Bertcela ez dire promes hauc,  
 Haren promes dibinoac.

J. Nigarrac ungui eguiteco,

132 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Hartçac egungo eguna ;  
Ez baitio Jaincoac promes ,  
Nihori biharamuna.

B. Eguin behar denaz gueroztic ,  
Nahi dut ungui pentsatu ,  
Dembora astiro harturic ,  
Ungui nahi dut complitu.

J. Erhoa, halaco gloria ,  
Hic uste parabisuan ,  
Eta bitartean usten duc ,  
Benturaren hurriscuan.

B. Utcico dut oso osoqui  
Bekhatuaren bidea ,  
Eta seguituco dut guero  
Berthutearen chedea.

J. Façoin huntan penitencia  
Bethi urruntcen duquela ,  
Ez duquen demboran uste duc  
Saindu eguinen haicela.

B. Placer ilhaunec darotate  
Bihotz gucia charmatcen ;  
Hautaric ecin apartatuz  
Hunela naiz amarratcen.

J. Urrun hadi lehen bai lehen ,  
Eta horrien lekhan ,  
Jaincoa nausi eguinen çaic ,



Hire bihotz dohaxuan.

B. Nola usantça gaichtoec tus-  
ten

Flacatcen gure indarrac!

Cerc deseguin othe detçaque

Hauquien gathe gogorrac!

Ene ondicoa, ondico

Posible den handiena!

Imposible da utz deçadan

Ene gathibutasuna.

O Salbatçaile Jauna! çato,

Çato ene laguntcera;

Gucien Salbatçaile ona!

Çato ene libratcera.

Halaco mendi itsusian,

Mendi tormentez bethean,

Amudioac hil cinduben

Itçaturic gurutcean.

Higuin araz dietçadatçu

Munduco charma emeac,

Eta porrosca bihotcean

Bekhatuaren gatheac.

Çuc, Jauna, charmatcen nauçu

Ceruco charma puchantez;

Hautsico tut finean socac,

Ifernuaren despitez.

134 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Ez dire deus enetçat orai  
Ene placerac munduan ;  
Bethicotz eguin çaiçquit, Jesus ,  
Nausi ene bihotcean.

Mundua, ô mundu itsua!  
O handitasun ez deusac,  
Sentsuen atseguin ilhunac!  
O aberastasun escasac!

Baçoazte arinquiago  
Ecen-ez chirripan ura ,  
Nola beraz çaituztet nic  
Maitatu hambat demboraz?

Bainan çu aspaldion çaren  
On, eder eta berria,  
Nola hunen berant darotçut  
Eman arima gucia?

Nic çure kharrez behar nuen  
Erre ene egunetan ,  
Ezperen maitatuco çaitut  
Gaineraco demboretan.

Su sainduac erreric uzquic  
Munduco sentimenduac,  
Eta hartçac doluz çaurthuric  
Ceruco mobimenduac.

B. Ah! bai, uzten tut bekhatuac,  
O Jesus, orai beretic :

EXERCICIO IZPIRITUALA. 135

Hausten tut socac ; egonen naiz  
Doluz bethi çure-gatic.

Horra jadanic seguitcen dic  
Gloriac hire dolua ;  
Hire gatheac desequinic  
Ematen daroc cerua.

Emoc dolore sainduari  
Hire bicitce gucia ;  
Hire nigarrec hilen dire  
Ifernuco khar handia.

---

*Bekhatoreac quitatcen du  
bekhatua.*

**I**NGRATQUI ofentsatu caitut,  
**L**O Jainco guciz maitea !  
Damu dut, ikhus çaçu, Aita,  
Ikhus ene dolorea.

Entçun naçaçu çure-gatic  
Auhenez nola nagoen,  
Entçun ene bihotz humilac  
Nola desira çaituen.

Gogotic nigar eguinen dut,  
Eguinen penitencia ;  
Eta utcico seculacotz  
Bicitce gaichto gucia.  
Mila eta mila herio

136 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Lehen ditut sofrituco ,  
Ecen ez deusic çure contra  
Behin ere pentsatuco.

Seculacotz uzten tut beraz  
Ene usantça gaichtoac,  
Çu bethi ere maitatceco ,  
Çeruetaco Jaincoa.

Maitatu nauçu bethi ere ,  
O Trinitate handia!  
Çure maitatcen emplegatu  
Nahi dut bihotz gucia.

---

*Nola eguin behar den  
Contricionea.*

**N**IGARREZ nago ikhusiric  
Ene falten belztasuna,  
Eta ikhasiric halaber  
Aita çure ontasuna.

Eguia da hirritatu dut  
Çure colera justua ;  
Çure besoa armatu dut,  
O juje ofentsatua!

Hala ere hau ez da pena  
Ene pena handiena ;  
Bainan bai ceren çu çaitudan  
Tristatu , ene Jaun ona.

*Bertcea.*

**C**ALMA çaqu, Jaun ona, calma  
 Çure colera justua,  
 Erdiratcen naiz aditceaz  
 Nic mereci gastigua.

Çure-ganic urrundu banau  
 Bekhatu dohacabeac,  
 Bederen hurbiltcen banindu  
 Bihotceco doloreac.

---

*Contricionea amplequiago declara-  
 ratua Gurutcearen aitcinean;  
 Bekhatorea dolopez eta amu-  
 dioz çaurthua.*

**C**UIÇONEN eta Aingueruen  
 Erregue eta Jaincoa,  
 Posible diren on gucien  
 Itsaso eguiazcoa.

Çu çare gucien Printcea,  
 Eta çu Majestatea,  
 Gure bihotcen goçatceco  
 Çu on guciz capablea.

Arren eguin dieçadaçu  
 Nahi cinduquen bihotz bat,  
 Çure-gatican sofrितceco  
 Çuc placer duçun beçambat.

138 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Oraino desiratcen nuque  
Nuben ene dolorea,  
Ceren çu tristatu çaitudan,  
Ah! Jainco guciz maitea!

Bethi desplacer nahi nuque  
Çuri eguin desplacerez,  
Eta tristecia osoa.  
Çuri eman tristeciez.

Nahi nuque bethi pairatu  
Bihotcean agonia,  
Eta dōlozez akhabatu  
Ene bicitce gucia.

Ez bacindu ceruric ere  
Çure adisquideentçat,  
Eta ifernuric ez balitz  
Bekhatore etsaientçat.

Hala ere sofritu bethi  
Nahi nuque çure-gatic,  
Bethi sofritu, Jauna, çuri,  
Placer eguitea-gatic.

Ah! Jesus, indaçu beraz  
Dolore herra handiac  
Munduan diren bekhatuec  
Mereci tusten guciac.

Ah! segur, Jauna, ez liçate  
Çure ungui maitatcea,

Egun oroz eguiten diren  
Hobenez ez tristatcea.

O gure amudio maite,  
Gure on, gure gloria,  
Majestate infinitua,  
Jainco adoragarria!

Ez othe nintçate secular  
Hain dohaxu guerthaturen,  
Non bekhatuen khasatceco  
Bicia bainuque emanen?

Segur eguiazqui darotçut,  
Ene Jauna, declaratcen,  
Belhaurico, eta bihotcez  
Aitcinean prometatcen.

Baldin bainitu mila bici,  
Lehen nituzque emanen,  
Ecen ez çu arinqui ere  
Secular ofentsaturen.

Beraz prometatcen darotçut  
Ahalaren eguiteco,  
Çure moyanez huts guciac  
Ditudala quitatuco.

Fagore hunen galdetceco,  
Lagundu nauçu graciaz;  
Lagun çaquizquit complitceco  
Behar den indar guciac.

140 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Badaquit ez duçula nahi  
Bekhatorea hil dadin :  
Bainan utz deçan bekhatua,  
Eta ungui bici dadin.

Helas, Jauna! helas, Jaincoa!  
Bihotcez ditut hartuco  
Ordenatuco tutçun penac,  
Amudioz complitceco.

Besarcatuco tut posible  
Diren-dolore guciac ;  
Imposible direnac ere  
Içanen ç aizquit thipiac.

Promes darotçut guehiago  
Cofesatuco naicela,  
Apheçari falta guciac  
Erranen diotçadala.

Içanen da ene placera  
Ethorrigo den demboran ;  
Bicico bainaiz, çuri eguin  
Desplacerez displaceran.

Ah! bai, çu nahi çaitut, Jesus,  
Hartu ene exemplutçat ;  
Çure min, eta doloreac  
Ène gucien mirailtçat.

Eguin ç aizquitçun afruntuac  
Emanen tut bihotcean,



Hil, eta bici egoteco  
Çurequien gurutcean.

---

*Bekhatoreac hartu nahi du  
bicitce ona.*

**E**z darot doloreric baicen  
Ene bihotçac ematen,  
Eta ez ene bi beguieç  
Nigarric baicen eguiten.

Jauna, hain tormenta cruelec  
Naute bethi erdiratcen!  
Arren beraz lagun çaquizquit  
Hauquien aphacegatcen.

Eguin agatic ene hutsez  
Munduco auhen tristeac,  
Çuc baicen nihorc ez deçaque  
Senda ene doloreac.

Ecen hambat min sofrituric,  
Bethi nago doloretan;  
Nahasten baicen ez naiz bethi,  
Bethi pairatu ondoan.

Laster cihoan chirripa bat  
Itsasoaren aldera,  
Bere jaidurac baitçaraman  
Bere centro propiora.

Bainan trabatu içan çuen

142 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Bidean horma gogorrac,  
Urean ciren olhatch pilez  
Eguinic gathe amarrac.

Beguiria cegocon iguzquia,  
Bere thronuan jarriric,  
Eta khechatu icatu cen  
Hura preso ikhusiric.

Horma hotça (suan beçala)  
Arrajen clartasunean  
Beroñu eta urthu çuen,  
Libro largatu bidean.

Bihotça hala cihoatan  
Chirripa ciduriela,  
Ceruco itsaso handia  
Atceman behar çuela.

Bainan ah! ene bihotçari  
Trabatu nahiz cortsua,  
Bekhatuac (negu cruelac)  
Hilcioen bere sua.

Urrunda cen Jaincoa-ganic  
Galduric bide saindua,  
Hotçac trencaturic cegoen  
Ecin causituz cerua.

Salbatçaile Jauna, çu çare  
Gure arimen arguia,  
Çu ethortcen çare mundurat,

Munduaren iguzquia.

Arren idequi çatçu beraz

Çure bi begui eztiac,

Eta sendatuco ditutçu

Ene dolore guciac.

Bekhatuac hoztu bihotz hau

Erdira dieçadaçu :

Idorrac ditut bi beguiac,

Urtan gambia dietçadatçu.

Itçulico darozquidatçu,

Bi ithurri ederretan :

Çure-ganat nabigatceco

Bi itsaso sainduetan.

Içanen da çure odola

Gure itsaso gorria,

Han barrena dut hondatuco

Ene bihotz egarria.

Alferric çaiçquit mariñelac

Laguntcerat ethorrico,

Ithoco naben elementa

Miletan dut laudatuco.

Içanen da ene untcia

Ur huntan çure habea,

Ene bela çuc çure thomban

Içatu hil mihisea.

Pilotutçat çure gracia,

144 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Çure gloria haicetçat,  
Ama içar, Jaincoa tresor,  
Bien Semea portutçat.

---

*Bekhatorea Manjateraren eta  
Gurutcearen erdian.*

**N**AHI baduc ungui maitatu  
Jesusen legue dulcea,  
Maita çac haren manjatera,  
Eta maita gurutcea.

Manjateran irakhasten dic  
Jesusec inocentcia,  
Gurutcean dic predicatcen  
Jesusec penitentcia.

Arima beraz nahi baduc  
Bici sosegu handian,  
Beguirauc ez ilkhi, ago bethi  
Hequien bien erdian.

Amudioac hire penac  
Darozquic gambiatuco,  
Eta dolore dibinoac  
Mila charmez charmatuco.

---

*Jesu-Cristoc ABISU ematen dio  
Penitentari.*

**S**ECULAN etçaquela segui  
Bekhatuen guticia,

Kharitatea beguira çac,  
Ez gal nic eman gracia.

Eguic beraz ahal daguiquen  
Obra saindu temporalala,  
Eta bethi complituco duc  
Nic nahi dudan beçala.

*Penitentac.*

Çure placera da, ô Jauna!  
Guiconac duen gloria;  
Hori da bada mundu huntan  
Nic nahi dudan gucia.

Hori da orai, eta bethi  
Desira dudan desira,  
Eta noiz complituco dudan,  
Jaincoa, çure placera.

*Jaincoac.*

Bethi hartuco duc dembora  
Othoitz onen eguiteco,  
Othoitçac behar daroc eman  
Hire dembora escuco.

Arroçoina duquec orduan  
Osoqui hire nausi,  
Eta arroçoinaren nausi  
Ceruco Jainco handia.

Choil tuc haguitzpreciatuqui

146 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Mementoac emplegatcen,  
Noiz ere baita ceruetan,  
Oracionea aguertcen.

Jaincoari altcha dioçoc  
Hire bihotça obretan:  
Mahainean, etchean, landan,  
Eta lekhu gucietan.

Bethi ere ofri dioçoc  
Gorphutça, eta gogoa:  
Hiretçat duquec onthasuna  
Harentçat bozcarioa.

Finean hire obrac dituc,  
Fletchen guisa bolatuco,  
Eta ciotec Jaincoari  
Bere bihotça çaurthuco.

*Bertce* ABISUA.

**N**AHI baduc hire minentçat  
Erremedio ezta,  
Athor hunat, errecibi çac  
Debotqui Eucaristia.

Hire eguia denaz gueroz,  
Eguic hire janharia;  
Emanen dic hire ariman  
Bicitce miragarria.

Orduan daroc garbituco  
Haragui hunec gorphutça;

Baita hunen odolac ere  
Eder eguinen bihotça.

---

Nahiz atheratua denean, eta noiz nahi den Aldareco Sacramendu Sainduari eguiteco erreparacione eta amanda honorablea.

**O**STIA adorablea, amudiozco bictima preciatua, ene gorphutçaren beguiei sacramendu horretan estaltcen çaitena, fede bici batez othoizten çaitut aguerçaquizcoten ene arimaren beguiei. Salbatçaile maitea cer hari çare tabernacle horretan, eta cer dire çuc estalqui dibino eta misterio horren azpian ditutçun empleguac? Gure bekhatu eta gure abominacione ixusiec egun oroz, obliga leçaquete çure Aita ceruco fudre eta ozprina guciac gure gainerat etchatcera, eta gure uholdez hondatcerat; bainan çu causitcen çaitu gure artean sacramendu horretan, hortz adar formatua hedoi batean; eta Jainco justuac ecin

## 148 EXERCICIO IZPIRITUALA.

hor ikhus çaitçaque, non ez den berehala misericordiaz bethetcen, eta non ez den orhoitcen çuc çure Aitarequin bekhatorosentçat eguin duçun alientciaz. Çure bethiereco emplegua sacramendu horretan, çure Aitari amanda honorable eguiten haritcea da, Aphez nausi eta guiçonen bictima beçala, guiçonen bekhatuec Jaincoaren perfezione guciei eguiten diotçaten agrabioez erreparacione eguiten dioçula. Justu da ni ere çurequin junta nadin çure emplegetan, eta çure sentimenduetan sar nadin sacrificiozco çocietate batean; eta çure parte bat naicenaz gueroz, çure gorphutceco miembro bat beçala, anima naçaçu çure celoaz eta çure izpirituaz, nic ere çure alderat eguin deçadan çuc çure Aitaren alderat eguiten duçuna. Guiçonec bere bekhatuez ez dituzte choilqui çure Jaincotasunaren perfezioneac desohoratcen, bainan bai oraino çure



EXERCICIO IZPIRITUALA. 149

guiçontasunaren handitasun, eta berthute guciac ere. Ah! Jauna, bethi çure ofentsatcen eta çure gaixqui tratatcen hari diren bekhatoros dohacabe hetaric naiz: çuri eguiten ç aizquitçun mespreçio horien artean cer guehienic admiratuco dut, ala çure pacientia, ala çure amudioaren constancia? Hemen naiz çure oinetan çuri amanda honorable eta erreparacione ohorezcoaren eguiten; barkhamendu esque nagotçu enetçat, eta ene anaya guiristino gucientçat; eta çuri satisfacione eguiteco ofrendatcen darotçut çuc çure Aitari ofrendatcen dioçuna bera, bihotz hura, amudio hura, odol hura, çauri hec, sacrificio hura, eta hortan çarratcen ditutçun misterio hec guciac, eta oraino gure beguiei presentatcen diotçatçuten berthute guciac.

*Pater noster* &c., eta erratçu guero Sacramendu Sainduaren Lethaniac.

*Sacramendu Sainduaren Benedic-  
cionea ematean,*

*Eguiteco OTHOITÇA.*

**O** Jesus, ene Salbatçailea! sin-  
hesten dut, batere dudaric  
eguin gabe, Sacramendu adorable  
horretan çarela eguiazqui eta er-  
realqui, çure gorphutz, arima,  
odola eta Jaincotasunarequin;  
prest naiz noiz nahi den eguia  
hunen sustenguan neure biciaren  
emateco. Adoratcen çaitut posi-  
ble den errespetu guciarequin;  
indaçu çure benedicione saindua,  
eta seculan çu ez ofentsatceco  
gracia.

*Jesu-Cristori OTHOITÇA.*

**J**ESU-CRISTO, guiçon Jaincoa,  
Eta ene esperantça,  
Çure baithan fincatua dut  
Osoqui ene fidantcia.

Jauna, çure-ganic dut uste  
Ceruan çure gloria;  
Gloria çuc çure odolaz  
Gurutcean merecia.

Ah! heriotceco orena,  
Ala hi harrigarria!

Arren, Jesus, lagun çaquizquit  
Guertha daquidan ezta.

Ene arima hil ondoan  
Jujatu behar denean,  
Emaçu çure gurutcea  
Gure bien artean.

Jauna, beraz ez çaçula har  
Ene hobenen bengantça;  
Çure odola laguntcen çait,  
Eman darot esperantça.

Helas! aithortcen dut, eguia da  
Gaichtoa içan naicela;  
Bainan nola, ez çare çu hil  
Salbatu behar nauçula?

Nic içatecotz esperantça  
Ceruetaco gorthean,  
Asco dut çure ikhustea  
Gurutcearen gainean.

Galberian içatu tutçu  
Bortz çauri dolorezcoac;  
Ceruco portaleac dire,  
Leiho amudiozcoac.

Çathitu içan çaitçunean  
Çure gorphutz sacratua,

152 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Eguin cen, gure sendatcecotz,  
Ithurri benedicatua.

Handic darozquigutçu husten  
Balsamo eta ezta,  
Habeaz han eguiten duçu  
Gloriazco çurubia.

Parabisuan içatecotz  
Çure plazer eternalac.

Munduan sofritu behar tut  
Çure-dolore mortalac.

Bilhatu nauçu çure-ganic  
Ihesi nabilanean :

Baldimba ez nauçu utcico,  
Bilhatcen çaitudanean.

Pentsatuco dut bethi ere,  
Jesus, çure herioan,  
Hil eta bici egoteco  
Amudio dibinoan.

---

*Andredena Mariaren*

*Cerbitçari içateco* OTHOITÇA.

**A** GUR, Maria dibinoa,

Birjina pare gabea,

Agur, Andreric handiena,

Jesusen Ama emea.

Arren gomendatcen darotçut

Osoqui ene bihotça,  
 Ene bici, ene herio,  
 Arima eta gorphutça.

Hautatcen çaitut seculacotz  
 Birjina ene amatçat,  
 Ene argui, ene guidari,  
 Adbocat eta patrointçat.

Promes darotçut ez dudala  
 Çure contra deus erranen,  
 Ez eguinen, eta neureric  
 Seculan ez sofrituren.

Çuc ere, othoi, Erreguina,  
 Çure haurtçat har naçaçu;  
 Jesus, çure Seme Jaunaren  
 Esclabo eguin naçaçu.

---

*San Joseph handiari*

OTHOITÇA.

**J**OSEPH, Birjina Mariaren  
 Espos dibino handia,  
 Guiçon Jainco baten amaren  
 Arkhangelu guardaria.

Dibinitateac beretçat  
 Hautatu adisquidea,  
 Guretçat Ama othoitz çaçü,  
 Othoitz guretçat Semea.

154 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Içar bat agueri den guisa  
Ilharguiaren aldean,  
Distiatuco duçu Seme  
Eta Amaren gorthean.

Ez da secular ilhunduco,  
Joseph, çure clartasuna,  
Bethi dute çure beguiec  
Eguinen gure fortuna.

Çure bothere gloriosa  
Haguitz da urrun hedatu,  
Oraino gure erresuma  
Ez da bada seguratu.

Ikhus çaçu, othoi, ceruco  
Thronutic, gure beharra;  
Frogaraci dieçaguçu  
Çure berthute ederra.

---

*Aingueru Beguirailari.*

**A**GUR Aingueru beguiraila,  
A Ene iguzqui handia,  
Gloria dohaxuco printce,  
Jaincoaren iduria.

Nitaz cargu hartuz gueroztic,  
Bethi nauçu sustengatu,  
Arguitu, guidatu, lagundu,  
Eta bethi gobernatu.

Hartcen çaitut guida beçala,  
 Patroin beçala maitatcen,  
 Çure borondate osora  
 Osoqui naiz errendatcen.

Othoizten çaitut humilduric  
 Jesu-Cristoren odolaz;  
 Çure contra içana-gatic  
 Seculan ez ni uzteaz.

Baldin errebelatcen banaiz  
 Chuchen naçaçu bidean:  
 Guerthatcen banaiz tristatcera,  
 Contsola ene minean.

Periletan causitcen banaiz,  
 Arren beguira naçaçu;  
 Çure bidea ez badaquit,  
 Irakhatz dieçadaçu.

Galdeguioçu Jaincoari  
 Gracia ikhus çaitçadan,  
 Çurequin bethi, Jainco Jauna,  
 Ceruan lauda deçadan.



## CANTICA BERRIAC

*Basoco Comunionearen gainean,*

*Donibaneco Nescatcha batec moldatuac.*

**B**ERTHUTEA ez othoi, çu ez urrun nereganic;

Guerla Satani eguiteco behar baitçaituzquet nie;

Çure èscasiez, ni balentzan eman nau icituric.

Ah! çu nerequin baçaitut, ez duquet ez beldurric.

Orai artean ibili naiz munduan itsuturic.

Jaunaren manamenduac arras ostricaturic;

Heldu naiz aldaretarat, urriquiz hunquituric,

Berthutea çutaz, ordean, osoqui harmaturic.

Aldaretara ethorri nahi nuque, ez urundu,

Çuc ordean, berthutea, behar nauçu tiratu:

Nahi nuque bethicotçat aldare hetan pausatatu,

Çuc binauçu, Jesus maitea, nohala gombidatu.



EXERCICIO IZPIRITUALA. 157

Norc behar cintuzque beraz, çu Jau-  
na, errefusatu,  
Criminel baten bilhatcen, çarenean ne-  
khatu!

Trompa ez nadin, berthutea othoi, la-  
gun naçaçu;

Çu behar baitçaitut, Jesus ene jabia mai-  
thatu.

Çure galdeac, oi, Jesus! bihotça hu-  
quituric,

Heldu naiz ni çure-ganat, urriquitan  
sarthuric,

Nere faltez suspiretan orai nago çaur-  
thuric,

Aldarearen nigarretan urthuric.

Enetçat ceren baitçaitut nic, hemen,  
janharia;

Berant balimbada ere, naiz hunat ethor-  
ria.

Ez dut nic bertce jaberic baicen Jainco  
bicia;

Ostia Saindu huntan da, guericean jarria!

Oi, hau miracuilu handi eta espanta-  
garria!

Jainco bat nere janhari cerutican jaut-  
sia!

Ah! çure errecibitceco içan nadin garbia,

Çu othoizten çaitut, Jesus, eman daçu  
gracia.

Çuretçat behar dut çure banqueta nic  
dastatu,

158 EXERCICIO IZPIRITUALA.

Ceren enetçat baituçu ceronec antolatu :  
Amodiozco khar batian behar dut beraz  
sarthu ,

Edo ez dut behar jaterat ausartatu.

Cinuelaric ikhusten ene gaichtotasuna,  
Ni-ganat ethorri çare gucia çu çarena;  
Egon çaiten ene baithan garbi naçaçu,  
Jauna ,

Enetaco, orhoit çaiten, odola eman ducula.

*Orena jotcean erraçü :*

**B**ENEDICATUA dela menderen  
mende gucietan Jesu-Cristo  
gure Erredemptorearen incarna-  
cioneco orena, *Laudate Domi-  
num, omnes gentes, &c.*

*Predicuaeren aitcinean eguiteco*

**OTHOITÇA.**

**J**ESUS, ene Erredemptorea, guri  
çure Aitaren borondatearen  
eta gure salbamenduaren bidea-  
ren erakhusterat, mundurat et-  
horri çarena; huna non presen-  
tatcen naicen çure hitz saindua-  
ren aditcerat: ordean predicu gu-  
ciac alferretan içanen dire, Jau-  
na, baldin ceronec gure bihotçac

EXERCICIO IZPIRITUALA. 159  
mobitcen ez baitutçu. Idec çatçu  
beraz ene bihotçaren beharriac  
çure hitz sainduaren sartceco, er-  
recibitceco, eta probetchu handi  
baten eguiteco; eta emoçu Pre-  
dicari horri çure izpiritua, eta hor-  
ren hitcei çure uncione saindua,  
horren eta gure santificatceco.

*Predicu ondoan.*

**J**ESU-CRISTO, ene Jauna, neure  
esquer humilac errendatcen  
darozquitçut, ceren naurritu nau-  
çun çure hitz sainduaren oguiaz  
eta biandaz; othoitz eguiten da-  
rotçut, Jauna, eguin dieçadaçun  
gracia doctrina saindu hunetaz  
probetchu eguiteco, eta çure ma-  
namendu sainduac exatuqui eta  
placerequin complitceco.

---

*Nihor penetan denean cerbait e-  
guiteco ez jaquinez nola eguin,  
Jaincoari eguiteco OTHOITÇA.*

**E**NE Jaincoa, contseila naça-  
çu; çure arguiac ene-ganat  
heda çatçu, eta çure çuhurtcia-

160 EXERCICIO IZPIRITUALA.

ren cembait seinalez ene arimari  
 cer eguin behar duben ocacione  
 hunetan irakhax dioçoçu. Guida  
 çatçu, Jauna, ceronec ene pau-  
 suac, çure borondatetic urrun eta  
 errebela ez nadintçat. Contseilu  
 hainitz causitcen dut, çuhurtcia  
 eternala, bainan ene pena da çu-  
 rea ecin jaquina; eçagut araci die-  
 çadaçu, ene inclinacionea çure es-  
 cuaz laguntcen duçula, çure cont-  
 seilurat erortcera, eta determinat-  
 cerat, çuc inspiratuco darotaçun  
 hautuaren eguiteco. Badaquit ez  
 dudala deus ere eguinen çuhurqui,  
 eta dohaxuqui baicen çure çu-  
 hurtciaren arguiec ene gainean  
 distiatcen dutenean, eta neure  
 ilhumbetan guidatcen nautenean.

*Burasoec bere umeen Bicitce ona  
 Jaincoari galdeguiteco*

OTHOITÇA.

**J**AINCO misericordiosa, ceinac  
 Jentçuten baititutçu bere afli-  
 cionetan çure baithan choilqui

bere esperantçac ematen dituzte-  
 nen othoitçac, beguira dioçoçu  
 ene umeen bicitce desordenatua-  
 ri; ez, Jauna, hequien punitceco,  
 bainan bai hei barkhatceco, eta  
 hec çure bide chuchenean ema-  
 teco. Jainco ona, eguioçute gra-  
 cia bere damnacioneco estatu tris-  
 teen eçagutceco; baldin peniten-  
 ciaz çure-ganat combertitcen ez  
 badire, ez çaitecela, Jauna, orhoit  
 nic eman ahal içatu diotçotedan  
 exemplu gaichtoez, eta hec bere  
 conduita gaichtoan ez corejitceaz  
 eguin dudan faltaz, eta hequien  
 contra eguin ahal dituzquedan  
 maledicioneez. Othoizten dut hu-  
 milqui çure Majestate dibinoa bar-  
 kha dietçaquigun gure falta gu-  
 ciac hei eta niri. Contsola çaçü,  
 Jauna, buraso afligitu hau he-  
 quien combertcione lasterraz, cei-  
 nac eguiten baitarotçu santa Moni-  
 cuac bere seme Augustinez egui-  
 ten cerotçun othoitz bera. Bethe  
 çaçü, Jauna, ceronec ene othoit-

cean causitcen den escasa; othoitz hau agrada daquiçuntçat, othoizten çaitut saindu horien arartecotasunez, eta Birjina Sainduarenaz, eta çure Seme maitearen pasio-nearen eta heriotcearen merecimenduz; cerua aleguera dadintçat hequien bicitcearen gambiantçaz, hec eta nic esquerrac errenda dietçaquitçugun, eta cerbitça çaitçagun fidelqui, çure gloriáz goça gaitezqueen artean.

*Emazte içorrec egun guciez eguin behar duten OTHOITÇA.*

**E**NE Jainco Jauna, ceruaren eta lurraren creatçailea, çeinac gauça guciez disposatcen baituçu placer duçun beçala, nahi içatu duçunaz gueroz gutaz cerbitçatu haur chumeen mundurat emateco, ceinac egun batez behar baitire içan capable çure cerbitçatceco, çure ohoratceco, eta çure maitatceco; eguidaçu gracia, Jauna, neure penen eta doloreen un-

## EXERCICIO IZPIRITUALA. 163

gui sofriteco; borondate onez er-  
 recibitcen ditut, eta othoizten çai-  
 tut neure bihotz guciaz, junta  
 dietçaquidatçun çuc ene-gatic çu-  
 re pasionean eta heriotcean sofri-  
 tu ditutçun pena eta doloreequin.  
 Ofrendatcen natçaitçu neure frui-  
 tuarequin batean; eta eguidaçu  
 gracia bathaiorat segurqui ekhart-  
 ceco eta bere bicitce gucian çure  
 manamenduei obedient içateco.  
 Entçun çaçu bada, Jainco ona,  
 ene othoitça, eta har gaitçatçu  
 haurra eta Ama çure gomendio-  
 an. Birjina Saindua, Ama gucien  
 ohorea eta consolacionea, urri-  
 cal bequiçu ama gaicho hau, cei-  
 nac desiratcen baitu çure Seme  
 maiteari cerbitçari baten ematea.  
 Esperantça dut halaber içanen de-  
 la çure cerbitçaria ere, ecen orai-  
 danic ofrendatcen darotçut, eta  
 çaitut othoizten beguira gaitçat-  
 çun peril gaichto gucietaric, eta  
 nahi dut ethorquiçunean çure bo-  
 rondatea içan dadin ene desira eta

164 EXERCICIO IZPIRITUALA.  
ene accione gucien erreguela. Ha-  
labiz.

*Biaietan dabiltçan Presune  
eguiteco OTHOITÇA.*

**O**JESUS ona! çure pasione sain-  
duco pena eta merecimen-  
duetz urrical naquiçu, eta çure çau-  
ri sainduen amoreagatic, bekha-  
tuac ene arimari eguin diotçan çau-  
riac senda dietçaquidatçu. Jauna,  
damu dut ceren çu beçalaco Jain-  
co on bat ofentsatu dudan; nahi  
nuque neure bihotz osoaz egun-  
daino bekhatu eguin ez banu.  
Urta çaçü, Jauna, ene icena çu-  
re liburu justu mendecuzcoan,  
eta escriba naçaçu çure miseri-  
cordiazco bicitcearen liburuan.  
Garbi dieçadaçu ene arima çure  
odolpreciatuaz; pitz çaçü hil hau,  
argui çaçü ixu hau, eta chuchen  
çaçu errebelatu hau; eta halaco  
façoinez çure gracia handiez fa-  
gora, içan ez deçaquedan beçala  
bertce desiraric çure maitatceco-



ric, eta çure cerbitçatcecoric bai-  
 cic. Beguira naçaçu heriotce su-  
 pitutic, eta bertce accident gaich-  
 toetaric. Ene Salbatçaile maitea,  
 eguidaçu gracia cofesione on bat  
 eguinic, eta çure gorphutz pre-  
 ciatua disposicione saindu batean  
 errecibituric, heriotce on baten  
 eguiteco. Halabiz.

---

IGANDECO  
 BESPERRAC.

---

*Pater noster &c., Ave Maria &c.*

ψ. Deus, in adiutorium meum  
 intende: R. Domine, ad adjuvan-  
 dum me festina.

\* Gloria Patri, et Filio, et Spi-  
 ritui Sancto: \* sicut erat in prin-  
 cipio, et nunc et semper, et in  
 secula seculorum. Amen.

*Ant. Dixit Dominus.*

**D**IXIT Dominus Domino meo:  
 \* Sede à dextris meis.

Donec ponam inimicos tuos \*

scabellum pedum tuorum.

Virgam virtutis tuæ emittet Dominus ex Sion : \* dominare in medio inimicorum tuorum.

Tecum principium in die virtutis tuæ in splendoribus sanctorum : \* ex utero ante luciferum genui te.

Juravit Dominus et non poenitebit eum : \* tu es Sacerdos in æternum, secundum ordinem Melchisedech.

Dominus à dextris tuis, \* confregit in die iræ suæ reges.

Judicabit in nationibus, implebit ruinas; \* conquassabit capita in terra multorum.

De torrente in via bibet; \* propterea exaltabit caput.

*Ant.* Dixit Dominus Domino meo : Sede à dextris meis.

**C**ONFITEBOR tibi, Domine, in toto corde meo, \* in concilio justorum et congregatione.

Magna opera Domini, \* exquisita in omnes voluntates ejus.

Confessio et magnificentia opus  
ejus : \* et justitia ejus manet in  
seculum seculi.

Memoriam fecit mirabilium suo-  
rum, misericors et miserator Do-  
minus : \* escam dedit timentibus  
se.

Memor erit in seculum testa-  
menti sui : \* virtutem operum suo-  
rum annuntiabit populo suo.

Ut det illis hæreditatem gen-  
tium : \* opera manuum ejus veri-  
tas et judicium.

Fidelia omnia mandata ejus,  
confirmata in seculum seculi, \*  
facta in veritate et æquitate.

Redemptionem misit populo  
suo, \* mandavit in æternum tes-  
tamentum suum.

Sanctum et terribile nomen e-  
jus : \* initium sapientiæ timor Do-  
mini.

Intellectus bonus omnibus fa-  
cientibus eum : \* laudatio ejus  
manet in seculum seculi.

*Ant.* Fidelia omnia mandata

ejus, confirmata in seculum seculi.

**B**EATUS VIR qui timet Dominum, \*  
in mandatis ejus volet nimis.

Potens in terra erit semen ejus: \*  
generatio rectorum benedicetur.

Gloria et divitiæ in domo ejus; \*  
et justitia ejus manet in seculum  
seculi.

Exortum est in tenebris lumen  
rectis; \* misericors et miserator  
et justus.

Jucundus homo qui miseretur  
et commodat, disponet sermones  
suos in iudicio; \* quia in æternum  
non commovebitur.

In memoria æterna erit justus; \*  
ab auditione mala non timebit.

Paratum cor ejus sperare in Do-  
mino, confirmatum est cor ejus; \*  
non commovebitur donec despi-  
ciat inimicos suos.

Dispersit, dedit pauperibus;  
justitia ejus manet in seculum se-  
culi: \* cornu ejus exaltabitur in  
gloria.

Peccator videbit et irascetur,  
dentibus suis fremet et tabescet: \*  
desiderium peccatorum peribit.

*Ant.* Qui timet Dominum, in  
mandatis ejus volet nimis.

**L**AUDATE, pueri, Dominum; \*  
laudate nomen Domini.

Sit nomen Domini benedictum,  
\* ex hoc nunc et usque in seculum.

A solis ortu usque ad occasum, \*  
laudabile nomen Domini.

Excelsus super omnes gentes  
Dominus, \* et super cœlos glo-  
ria ejus.

Quis sicut Dominus Deus nos-  
ter, qui in altis habitat, \* et hu-  
milia respicit in cœlo et in terra?

Suscitans à terra inopem, \* et  
de stercore erigens pauperem.

Ut collocet eum cum principi-  
bus, \* cum principibus populi sui.

Qui habitare facit sterilem in  
domo, \* matrem filiorum lætan-  
tem.

*Ant.* Sit nomen Domini bene-  
dictum in secula.

**I**N exitu Israel de Ægypto, \*  
 domûs Jacob de populo bar-  
 baro.

Facta est Judæa sanctificatio  
 ejus, \* Israel potestas ejus.

Mare vidit et fugit: \* Jordanis  
 conversus est retrorsùm.

Montes exultaverunt ut arie-  
 tes, \* et colles sicut agni ovium.

Quid est tibi, mare, quod fu-  
 gisti? \* et tu, Jordanis, quia con-  
 versus es retrorsùm?

Montes exultastis sicut arie-  
 tes? \* et colles sicut agni ovium?

A facie Domini mota est ter-  
 ra, \* à facie Dei Jacob,

Qui convertit petram in stagna  
 aquarum, \* et rupem in fontes  
 aquarum.

Non nobis, Domine, non no-  
 bis, \* sed nomini tuo da gloriam,

Super misericordia tua et veri-  
 tate tua; \* nequandò dicant gen-  
 tes: Ubi est Deus eorum?

Deus autem noster in cœlo; \*  
 omnia quæcumque voluit fecit.

Simulacra gentium argentum et aurum, \* opera manuum hominum.

Os habent et non loquentur; \* oculos habent et non videbunt.

Aures habent et non audient; \* nares habent et non odorabunt.

Manus habent et non palpabunt; pedes habent et non ambulabunt: \* non clamabunt in gutture suo.

Similes illis fiant qui faciunt ea; \* et omnes qui confidunt in eis.

Domus Israël speravit in Domino; \* adjutor eorum et protector eorum est.

Domus Aaron speravit in Domino; \* adjutor eorum et protector eorum est.

Qui timent Dominum speraverunt in Domino; \* adjutor eorum et protector eorum est.

Dominus memor fuit nostri, \* et benedixit nobis.

Benedixit domui Israël, \* benedixit domui Aaron.

Benedixit omnibus qui timent  
Dominum, \* pusillis cum majo-  
ribus.

Adjiciat Dominus super vos, \*  
super vos et super filios vestros.

Benedicti vos à Domino, \* qui  
fecit cœlum et terram.

Cœlum cœli Domino: \* ter-  
ram autem dedit filiis hominum.

Nōn mortui laudabunt te, Do-  
mine, \* neque omnes qui descen-  
dunt in infernum.

Sed nos qui vivimus, benedici-  
mus Domino, \* ex hoc nunc et  
usque in seculum.

*Ant.* Nos qui vivimus, bene-  
dicimus Domino.

*Capitula.*

**B**ENEDICTUS Deus, et Pater Do-  
mini nostri Jesu-Christi, qui  
benedixit nos in omni benedic-  
tione spirituali, in cœlestibus in  
Christo, sicut elegit nos in ipso  
ante mundi constitutionem, ut  
essemus sancti et immaculati in  
conspectu ejus in charitate.



## HYMNOAC

*Mendecoste ondoco Igandetaco.*

**O** LUCE qui mortalibus  
 Lates inaccessâ, Deus!  
 Præsente quo sancti tremunt  
 Nubuntque vultus Angeli.

Hic, ceu profundâ conditi  
 Demergimur caligine:  
 Æternus at noctem suo  
 Fulgore depellet dies.

Hunc nempè nobis præparas,  
 Nobis reservas hunc diem,  
 Quem vix adumbrat splendida  
 Flammantis astri claritas.

Moraris heu! nimis diu  
 Moraris, optatus dies:  
 Ut te fruamur, noxii  
 Linquenda moles corporis.

His cùm soluta vinculis  
 Mens evolârit, ô Deus!  
 Videre te, laudare te,  
 Amare te non desinet.

Ad omne nos apta bonum,  
 Fœcunda donis Trinitas:  
 Fac lucis usuræ brevi  
 Æterna succedat dies. Amen.

*Abendoco demboran.*

**S**TATUTA decreto Dei  
 Tandem propinquant tempora:

Emptus tot annorum morâ  
Affulget è cœlo dies.

Patris nefando crimine  
Proles jacebat saucia :  
In mortis umbra conditum  
Sedebat humanum genus.

Morti secundæ debitos  
Et sempiternis ignibus ,  
Horrenda justi judicis  
Manebat expectatio.

Heu! quis ruinæ tam gravis  
Sarcine damna, quæ manus  
Afferre tam grandi queat  
Parem medelam vulneri?

Tu, Christe, tu solus tuo  
Delapsus è throno, Deus,  
Imagîni potes tuæ  
Formam decusque reddere.

Rorate, cœli, desuper,  
Justumque fœcundo sinu  
Complexa tellus, perdito  
Orbi salutem germinet.

Sit sempiterna laus tibi,  
Verbum Patris factum caro,  
Cum Patre, cumque Spiritu,  
Nunc, et per omne seculum. Amen.

*Circuncisionetic Purificacioneraino.*

CHRISTUS tenebris obsitam  
Lustrando Judæam docet :  
Gens obstinato pectore

Christum docentem respuit.

Sese Deum signis probat ;  
Surgunt sepulchris corpora ,  
Erepta muto vox redit ,  
Claudo gradus, cæco dies.

Gens dura, flecti nescia,  
Aures sacris sermonibus  
Obturat; et solem fugit,  
Amore noctis perdita.

Nos lumen ambimus : Patris  
In quo refulget claritas,  
Ne mentibus suprepere  
Tetram sinas caliginem.

Nunquàm recedas à piis,  
Lux sempiterna, cordibus ;  
Te veritate fulgeant,  
Te charitate ferveant.

Qui natus es de Virgine,  
Jesu, tibi sit gloria,  
Cum Patre, cumque Spiritu,  
In sempiterna secula. Amen.

*Septuagesimatic Garizumaraino.*

**V**os, ante Christi tempora,  
Christi fideles asseclæ,  
Verenda justorum cohors,  
Primique credentùm patres.

Vestram quis, ô, dignis queat  
Efferre laudibus fidem ?  
Crebros anhelantis spei  
Quis explicet suspiritus ?

Hic exules, hic advenæ,  
Mundi figuram spernitis,  
Non litterâ, sed spiritu  
Promissa pensatis bona.

Intenta mens uni Deo  
Respectat æternas domos;  
Fac, Christe, nos veram quoque  
Desiderare patriam.

Sit laus Patrî, laus Filio;  
Utrumque qui nectis, Deus,  
Utrique compar, sit tibi  
Laus sempiterna, Spiritus. Amen.

*Garizumaco Igandetan.*

**A**UDI, benigne Conditor,  
Nostras preces cum fletibus,  
In hoc sacro jejunio  
Fusas quadragenario.

Scrutator alme cordium,  
Infirma tu scis virium,  
Ad te reversis exhibe  
Remissionis gratiam.

Multùm quidem peccavimus,  
Sed parce confitentibus;  
Ad nominis laudem tui  
Confer medelam languidis.

Sic corpus extrâ conteri  
Dona per abstinentiam,  
Jejunet ut mens sobria  
A labe prorsùs criminum.

Præsta, beata Trinitas,

Concede, simplex Unitas,  
 Ut fructuosa sint tuis  
 Jejuniorum munera. Amen.

*Pasiõneco eta Erremuco demboretan.*

**V**EXILLA Regis prodeunt;  
 Fulget crucis mysterium,  
 Quo carne carnis conditor  
 Suspensus est patibulo.

Quo vulneratus insuper  
 Mucrone diro lanceæ,  
 Ut nos lavaret crimine,  
 Manavit undâ et sanguine.

Impleta sunt quæ concinit  
 David fidelis carmine,  
 Dicens: In nationibus  
 Regnavit à ligno Deus.

Arbor decora et fulgida,  
 Ornata Regis purpurâ,  
 Electa digno stipite,  
 Tam sancta membra tangere.

Beata cujus brachiis  
 Secli pependit pretium!  
 Statera facta corporis,  
 Prædamque tulit Tartari.

O Crux, ave, spes unica!  
 Hoc passionis tempore,  
 Auge piis justitiam,  
 Reisque dona veniam.

Te, summa Deus Trinitas,  
 Collaudet omnis spiritus;

Quos per Crucis mysterium.  
Salvas, rege per secula. Amen.

*Bazco çaharretic Jondoni Salbatoreraino.*

**F**ORTI tegente brachio,  
Evasimus Rubrum mare;  
Tandemque durum perfidi  
Jugum tyranni fregimus.

Nunc ergo lætas vindici  
Grates rependamus Deo;  
Agnique mensam candidis  
Cingamus ornati stolis.

Hujus sacrato corpore,  
Amoris igne fervidi,  
Vescamur atque sanguine  
Vescendo, vivimus Deo.

Jam Pascha nostrum Christus est;  
Hic agnus, hæc est victima,  
Cruore cujus illitos  
Transmittit ultor Angelus.

O digna eælo victima!  
Mors ipsa per quam vincitur,  
Per quam refractis inferi  
Prædam relaxant postibus!

Christus sepulcri faucibus  
Emersus ad lucem redit;  
Hostem retrudit tartaro,  
Cœlique pandit intima.

\* Da, Christe, nos tecum mori,  
Tecum simul da surgere;  
Terrena da contemnere,

Amare da cœlestia.

Sit laus Patri, laus Filio,  
 Qui nos triumphatâ nece,  
 Ad astra secum dux vocat;  
 Compar tibi laus, Spiritus. Amen.

ψ. In Deo laudabimur totâ die;  
 R. Et in nomine tuo confitebimur  
 in seculum.

*Andredena Mariaren Cantica.*

**M**AGNIFICAT \* anima mea Do-  
 minum.

Et exultavit spiritus meus \* in  
 Deo salutari meo.

Quia respexit humilitatem an-  
 cillæ suæ : \* ecce enim ex hoc  
 beatam me dicent omnes genera-  
 tiones.

Quia fecit mihi magna qui po-  
 tens est; \* et sanctum nomen ejus.

Et misericordia ejus à proge-  
 nie in progenies \* timentibus eum.

Fecit potentiam in brachio suo;  
 \* dispersit superbos mente cordis  
 sui.

Deposuit potentes de sede, \* et  
 exaltavit humiles.

Esurientes implevit bonis, \* et divites dimisit inanes.

Suscepit Israel puerum suum, \* recordatus misericordiæ suæ.

Sicut locutus est ad patres nostros, \* Abraham, et semini ejus in secula.

Gloria Patri, &c.

---

## COMPLETAC.

---

Ÿ. Converte nos, Deus, salutaris noster;

R̃. Et averte iram tuam à nobis.

Ÿ. Deus, in adjutorium meum intende.

R̃. Domine, ad adjuvandum me festina.

Gloria Patri, &c.

Sicut erat, &c.

**C**UM invocarem, exaudivit me Deus justitiæ meæ: \* in tribulatione dilatasti mihi.

Miserere meî, \* et exaudi orationem meam.



Filii hominum, usquequò gravi corde? \* ut quid diligitis vanitatem, et quæritis mendacium?

Et scitote quoniam mirificavit Dominus sanctum suum: \* Dominus exaudiet me, cùm clama-vero ad eum.

Irascimini, et nolite peccare: \* quæ dicitis in cordibus vestris, in cubilibus vestris compungimini.

Sacrificate sacrificium justitiæ, et sperate in Domino; \* multi dicunt: Quis ostendit nobis bona?

Signatum est super nos lumen vultûs tui, Domine; \* dedisti lætitiâ in corde meo.

A fructu frumenti, vini et olei sui, \* multiplicati sunt.

In pace in idipsum \* dormiam et requiescam;

Quoniam tu, Domine, singulariter in spe \* constituisti me.

**Q**UI habitat in adiutorio Altissimi, \* in protectione Dei cœli commorabitur.

Dicet Domino: Susceptor me-

182 IGANDECO COMPLETAC.

us es tu, et refugium meum: \*  
Deus meus, sperabo in eum.

Quoniam ipse liberavit me de  
laqueo venantium, \* et à verbo  
aspero.

Scapulis suis obumbrabit tibi,  
\* et sub pennis ejus sperabis.

Scuto circumdabit te veritas  
ejus; \* non timebis à timore noc-  
turno.

A sagitta volante in die, à ne-  
gotio perambulante in tenebris, \*  
ab incursu et dæmonio meridiano.

Cadent à latere tuo mille, et  
decem millia à dextris tuis; \* ad  
te autem non appropinquabit.

Verumtamen oculis tuis con-  
siderabis, \* et retributionem pec-  
catorum videbis.

Quoniam tu es, Domine, spes  
mea: \* Altissimum posuisti refu-  
gium tuum.

Non accedet ad te malum, \* et  
flagellum non appropinquabit ta-  
bernaculo tuo.

Quoniam Angelis suis manda-

vit de te, \* ut custodiant te in omnibus viis tuis.

In manibus portabunt te, \* ne fortè offendas ad lapidem pedem tuum.

Super aspidem et basiliscum ambulabis, \* et conculcabis leonem et draconem.

Quoniam in me speravit, liberabo eum: \* protegam eum, quoniam cognovit nomen meum.

Clamabit ad me, et ego exaudiam eum: cum ipso sum in tribulatione; \* eripiam eum, et glorificabo eum.

Longitudine dierum replebo eum, \* et ostendam illi salutare meum.

**E**CCE nunc benedicite Dominum, \* omnes servi Domini.

Qui statis in Domo Domini, \* in atriis domûs Dei nostri.

In noctibus extollite manus vestras in sancta, \* et benedicite Dominum.

Benedicat te Dominus ex Sion,

184 IGANDECO COMPLETAC.

\* qui fecit cœlum et terram.

*Ant.* Miserere meî, Domine,  
et exaudi orationem meam.

*Basco demboran.*

*Ant.* Eripuit nos Deus de po-  
testate tenebrarum, et transtulit  
in regnum Filii dilectionis suæ.  
Alleluia.

---

- - HYMNOAC.

*Abendoco demboran.*

**I**N noctis umbra desides  
Dùm somnus artus occupat,  
